



JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO

al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA

Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

2007ko martxoaren 28a, asteazkena

ZENBAKIA **37** NÚMERO

Miércoles, 28 de marzo de 2007

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1621

5/2007 FORU ARAUA, otsailaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana (2006-2016) onartzen duena

Arabako Biltzar Nagusiek 2007ko otsailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Araua onetsi dute:

5/2007 Foru Araua, otsailaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana (2006-2016) onartzen duena.

Zioen Adierazpena

1998-2001 eperako Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Plan Integrala onartu zenetik, aldaketa nabarmenak gertatu dira hiri hondakinak kudeaketa arautu eta antolatzen duen arautegian. Hona hemen gai hori arautzeko eta planifikatzeko azken urteotan sortu diren zenbait erreferentzia: 1481/2001 Errege Dekretua, hondakinak hondakindegian utzita ezabatzea arautzen duena; 2004/12/CE Zuzentaraua, 94/62/CE Zuzentaraua (ontziei eta ontzien hondakinak buruzkoa) aldatzen duena; Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumen Ministerioak egindako Hiriko Hondakinak buruzko Plan Nazionala (2000-2006).

Printzipio berri horiek, zuzentarauak eta lurraldeko hondakinak kudeatzeko jarduera horiek guztiak bildu eta hondakinak kudeaketa aurreratuago bat ezartzeko beharrezkoak diren neurriak eta jarduerak abian jartzeko asmoz (denak datoz bat garapen iraunkorraren printzipioekin eta ingurumenari buruzko markoarekin), beharrezkoa da Arabako Lurralde Historikoko hiriko hondakinak kudeatzeko beste plan bat egitea. Horretarako, abenduaren 13ko 77/2005 Foru Dekretuaren (Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALA, 2006ko urtarrilaren 9koa, 3 zenbakia) bidez, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren (2006-2016) Proiektua onartzeko araudia onartu zen.

Ingurumen Zuzendaritzak prozedura horri ekin zion eta horretarako, 2006ko maiatzaren 16ko 742. zenbakiko Ebazpenaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren

JUNTAS GENERALES DE ALAVA

1621

NORMA FORAL 5/2007, de 19 de febrero, por la que se aprueba el Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (2006-2016)

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 19 de febrero de 2007 han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 5/2007, de 19 de febrero, por la que se aprueba el Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (2006-2016)

Exposición de motivos

Desde la aprobación del Plan Integral de Gestión de los Residuos Sólidos Urbanos de la provincia para el período 1998-2001 se han producido cambios significativos en el marco normativo que regula y ordena la gestión de los residuos urbanos. Así, la aprobación del Real Decreto 1481/2001 por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero, la aprobación de la Directiva 2004/12/CE por la que se modifica la Directiva 94/62/CE relativa a los Envases y Residuos de Envases, la aprobación de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible (2002-2020), y la formulación del Plan Nacional de Residuos Urbanos (2000-2006) por el Ministerio de Medio Ambiente, son algunas de las referencias más destacadas que pueden citarse en cuanto a nuevos contextos reguladores y planificadores que han surgido en estos últimos años.

Con el fin de integrar los nuevos principios, directrices y normas en las políticas orientadoras y líneas de actuación para la gestión de los residuos urbanos en la provincia, y en aras a articular las medidas y actuaciones necesarias para la implantación de una gestión avanzada de los residuos, acorde con los principios del Desarrollo Sostenible y marco ambiental vigente, se ha hecho necesario proceder a la instrumentación de un nuevo Plan de Gestión de Residuos Urbanos para el Territorio Histórico de Álava para lo cual y por Decreto Foral 77/2005, de 13 de diciembre (BOTH A nº 3 de 9 de enero de 2006) se aprobó el procedimiento reglamentario para la aprobación del Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (2006-2016).

La Dirección de Medio Ambiente dio comienzo a dicho procedimiento con la aprobación, por Resolución nº 742 de fecha de 16 de mayo de 2006, del Avance del Plan de Gestión de Residuos Urbanos

aurreproiektua onartu zuen. Aurreproiektu horrek Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterketa jasotzen zuen.

Hirigintza eta Ingurumen Saileko 2006ko ekainaren 2ko 487 Foru Aginduaren bidez, Ingurumen Eraginaren Aurre-txostena eta Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren (2006-2016) Proiektua onartu ziren, Eusko Jaurlaritza eta Arabako udal eta koadriletako entzunaldi izapidea bete ondoren eta jendaurrean hogeita hamar egunez egon ondoren. Bestalde, Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen eta Euskal Herriko Ingurumenaren Aholku Batzordearen txostenak ere eskatu ziren.

Alegazioak jaso, aztertu eta erantzun egin ziren; azterketaren emaitza Planari gehitu zitzaion; eta, urriaren 17ko Hirigintza eta Ingurumen Sailaren 917 Foru Aginduaren bidez Ingurumen Eraginaren behin betiko txostena onartu ondoren, Diputatuen Kontseiluak Plan hori onartu zuen.

Hondakinena Plana diruz zuzkitzeko, Biltzar Nagusiei 2008. urterako konpromiso kreditua 3.847.600,00 euroekin handitzea eskatu behar zaio, hain zuzen ere, gastu egoeraren bi partida hauek: "HHSen Kudeaketa Baliabideak eta Toki Erakundeei Laguntzak 1.60.2.05.43.00.613.01.01" partida 3.202.000,00 euroekin eta "Abandonaturiko meatze ustiatzearen betetze-eremuak 1.60.2.05.43.00.680.99.02" partida 645.600,00 euroekin.

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2006ko urriaren 24ko bileran, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana (2006-2016) onartu zuen eta Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana (2006-2016) onartzen duen Foru Arau Proiektua Arabako Biltzar Nagusiei bidaltzea onartu zuen.

Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 6.2.a) 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, Biltzar Nagusiei dagokie lurralde osoari eragiten dioten Arloko Planak onartzea. Horien artean dago Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana.

LEHENENGO ARTIKULUA

Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana (2006-2016) onartzea; plan hori arau honen eranskin gisa agertzen da

BIGARREN ARTIKULUA

2008. urterako konpromiso kreditua 3.847.600,00 euroekin handitzea, hain zuzen ere, bi partida hauek: "HHSen Kudeaketa Baliabideak eta Toki Erakundeei Laguntzak 1.60.2.05.43.00.613.01.01" partida 3.202.000,00 euroekin eta "Abandonaturiko meatze ustiatzearen betetze-eremuak 1.60.2.05.43.00.680.99.02" partida 645.600,00 euroekin.

HIRUGARREN ARTIKULUA

Kudeaketa-organo bat osatuko da, eta horretan Arabako Foru Aldundiak, Koadrilek eta Vitoria-Gasteizko Udalak hartuko dute parte. Organo horren kideek araz finkatuko dute horren funtzionamendua eta garapena

LAUGARREN ARTIKULUA

Kudeaketa bakarreko eta guztiontzako eredu bat sortuko da Arabako Lurralde Historikoko Garbigune guztietarako.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arau honen lehenengo artikulua eranskin gisa agertzen den Plana aldatu egin da artikulua berriei dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2007eko martxo 6a.- Lehendakaria – MARIA TERESA RODRIGUEZ BARAHONA

del Territorio Histórico de Álava (2006-2016) que contenía el Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

Mediante Orden Foral nº 487 de fecha 2 de junio de 2.006 del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente se aprobó el Informe Preliminar de Impacto Ambiental, así como el Proyecto del Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (2006-2016), habiéndose sometidos ambos al trámite de audiencia del Gobierno Vasco y de todos los Ayuntamientos y Cuadrillas de Álava y a exposición pública por un periodo de 30 días. De igual modo, se solicitaron los preceptivos informes de la Comisión Ambiental del País Vasco y del Consejo Asesor de Medio Ambiente del País vasco.

Recibidas, analizadas y contestadas las alegaciones e incorporando el resultado de su valoración en el documento del Plan y habiéndose aprobado así mismo el Informe Definitivo de Impacto Ambiental por Orden Foral nº 917 del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente del pasado 17 de octubre, el Consejo de Diputados aprobó el citado Plan

Con el fin de dotar presupuestariamente dicho Plan de Residuos, es preciso solicitar también a Juntas Generales el incremento de crédito de compromiso para la anualidad 2008 por importe de 3.847.600,00 €, en las partidas del estado de gastos la "1.60.2.05.43.00.613.01.01 Medios de Gestión de R.S.U. y Ayudas a Entidades Locales" por importe de 3.202.000,00 € y la "1.60.2.05.43.00.680.99.02 Area de Relleno Explotación Minas Abandonadas" por importe de 645.600,00 €.

El Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava, en sesión celebrada el 24 de octubre de 2006, aprobó el Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (2006-2016) y acordó remitir el Proyecto de Norma Foral de aprobación del Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (2006-2016) a las Juntas Generales de Álava.

De conformidad con lo dispuesto en el Artículo 6.2.a) 5 de la Norma Foral de Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava, de 7 de Marzo de 1983, corresponde a las Juntas Generales, en todo caso, la aprobación de los Planes Sectoriales que afectan a todo el territorio, entre los que se encuentran los Planes de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava .

ARTÍCULO PRIMERO

Se aprueba el Plan de Gestión de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Álava (2006-2016) que se incorpora como anexo a esta Norma.

ARTÍCULO SEGUNDO

Se incrementa el crédito de compromiso para la anualidad 2008 por importe de 3.847.600,00 €, en las partidas del estado de gastos la "1.60.2.05.43.00.613.01.01 Medios de Gestión de R.S.U. y Ayudas a Entidades Locales" 3.202.000,00 € y la "1.60.2.05.43.00.680.99.02 Área de Relleno Explotación Minas Abandonadas" por importe de 645.600,00 €.

ARTICULO TERCERO

Se constituirá un Órgano de Gestión en el que participarán la Diputación Foral de Álava, las Cuadrillas y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Su funcionamiento y desarrollo reglamentario se determinará por los componentes del mismo.

ARTICULO CUARTO

Se creará un modelo de gestión único y conjunto para todos los garbigunes del Territorio Histórico de Álava.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Queda modificado el Plan que se incorpora como anexo al artículo primero de esta Norma Foral en lo relacionado con el nuevo articulado.

Vitoria-Gasteiz, 6 de marzo de 2007 – La Presidenta.– MARIA TERESA RODRIGUEZ BARAHONA

<u>1</u>	<u>SARRERA ETA TESTUINGURUA</u>	4
<u>1.1</u>	<u>SARRERA</u>	4
<u>1.2</u>	<u>TESTUINGURUA</u>	4
<u>2</u>	<u>PLANAREN APLIKAZIO EREMUA</u>	6
<u>2.1</u>	<u>LURRALDE EREMUA</u>	6
<u>2.2</u>	<u>DENBORA-MUGA</u>	7
<u>2.3</u>	<u>PLANEAN SARTZEN DIREN HONDAKINAK</u>	7
<u>3</u>	<u>JARDUERA ESPARRUA</u>	9
<u>3.1</u>	<u>LEGE ESPARRUA</u>	9
<u>3.2</u>	<u>GAIARI LOTUTAKO PLANAK, JARRAIBIDEAK ETA ESTRATEGIAK</u>	14
<u>4</u>	<u>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO HONDAKINEN KUDEAKETAREN EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA</u>	20
<u>4.1</u>	<u>HONDAKINEN SORKUNTZA ETA KARAKTERIZAZIOA</u>	20
<u>4.1.1</u>	<u>Bereizi Gabeko (BG) etxeko hondakinen konposizioari buruzko azterketa</u>	25
<u>4.1.2</u>	<u>Laginen analisia</u>	25
<u>4.1.3</u>	<u>Karakterizazioaren emaitza, pisuan adierazia</u>	26
<u>4.2</u>	<u>ONDORIOAK</u>	28
<u>4.3</u>	<u>HONDAKINEN KUDEAKETAREN EGUNGO EGOERA</u>	28
<u>5</u>	<u>JARDUTEKO ESTRATEGIA</u>	37
<u>5.1</u>	<u>PRINTZIPIO ESTRATEGIKO ETA OBJEKTIBOAK</u>	37
<u>5.2</u>	<u>HONDAKINEN AURREIKUSPENA PLANAREN EPEMUGAN (2006-2016)</u>	41
<u>5.3</u>	<u>ALTERNATIBEN ANALISIA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA</u>	44
<u>5.4</u>	<u>JARDUERA PROGRAMAK</u>	47



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

<u>5.4.1</u>	<u>Prebentzio Programa</u>	47
<u>5.4.1.1</u>	<u>Xedeak</u>	47
<u>5.4.1.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	47
<u>5.4.2.</u>	<u>Gaikako Bilketa Hobetzeko Programa</u>	48
<u>5.4.2.1</u>	<u>Xedeak</u>	48
<u>5.4.2.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	49
<u>5.4.3.</u>	<u>Trebakuntza, Informazio eta Sentsibilizazio Programa</u>	50
<u>5.4.3.1</u>	<u>Xedeak</u>	50
<u>5.4.3.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	51
<u>5.4.4.</u>	<u>Instituzioen Laguntzarako Programa</u>	52
<u>5.4.4.1</u>	<u>Xedeak</u>	52
<u>5.4.4.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	52
<u>5.4.5.</u>	<u>Materia Organikoa Kudeatzeko Programa</u>	53
<u>5.4.5.1</u>	<u>Xedeak</u>	53
<u>5.4.5.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	54
<u>5.4.5.3</u>	<u>Inausketa eta lorezaintzako hondakinetzako berariazko jarduera eta neurriak</u>	54
<u>5.4.6.</u>	<u>EEHak Kudeatzeko Programa</u>	55
<u>5.4.6.1</u>	<u>Xedeak</u>	55
<u>5.4.6.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	55
<u>5.4.7.</u>	<u>Kontrolik gabeko isurketa-fokuak eta ingurumena kontuan hartuta leku desegokitan dauden hondakindegia Itxi eta Zigilatze Programara</u>	57
<u>5.4.7.1</u>	<u>Xedeak</u>	57
<u>5.4.7.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	57
<u>5.4.8.</u>	<u>Hondakin Handiak eta Oihal Hondakinak Balorizatze Programara</u>	57
<u>5.4.8.1</u>	<u>Xedeak</u>	57
<u>5.4.8.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	58
<u>5.4.9.</u>	<u>IMIHA Biltze Programara</u>	58
<u>5.4.9.1</u>	<u>Xedeak</u>	58



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

<u>5.4.9.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	58
<u>5.4.10.</u>	<u>Hondakinak Ezabatzeko Aukeren Programa</u>	59
<u>5.4.10.1</u>	<u>Xedeak</u>	59
<u>5.4.10.2</u>	<u>Jarduerak eta neurriak</u>	59
<u>5.5</u>	<u>PLANEKO JARDUERAK MARTXAN JARTZEKO PLANGINTZA</u>	60
<u>6</u>	<u>AZTERKETA EKONOMIKO FINANTZARIOA</u>	63
<u>6.1</u>	<u>SARRERA</u>	63
<u>6.2</u>	<u>PREBENTZIO PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	63
<u>6.3</u>	<u>GAIKAKO BILKETA HOBETZEKO PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	63
<u>6.4</u>	<u>TREBAKUNTZA, INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	64
<u>6.5</u>	<u>INSTITUZIOEN LAGUNTZA PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	64
<u>6.6</u>	<u>MATERIA ORGANIKOAREN KUDEAKETA PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	65
<u>6.7</u>	<u>EEHen KUDEAKETA PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	65
<u>6.8</u>	<u>KONTROLIK GABEKO ISURKETA-FOKUAK ETA INGURUMENA KONTUAN HARTUTA LEKU DESEGOKITAN DAUDEN HONDAKINDEGIAK ITXI ETA ZIGILATZEKO PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	66
<u>6.9</u>	<u>HONDAKIN HANDIAK ETA OIHAL-HONDAKINAK BALORIZATZEKO PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	66
<u>6.10</u>	<u>IMIHA BILTZEKO PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	66
<u>6.11</u>	<u>HONDAKINAK EZABATZEKO AUKEREN PROGRAMARAKO INBERTSIOAK</u>	66
<u>6.12</u>	<u>INBERTSIOEN LABURPEN TAULA</u>	69
<u>6.13</u>	<u>INBERTSIOAK, GUZTIRA</u>	73
<u>7</u>	<u>PLANAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA</u>	75
<u>7.1</u>	<u>JUSTIFIKAZIOA</u>	75
<u>7.2</u>	<u>ALHHHKPren JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA</u>	75
<u>7.3</u>	<u>ALHHHKPren BERRIKUSKETA EGITEKO SISTEMA. PLANAREN MONITORIZAZIOA</u>	75



1 SARRERA ETA TESTUINGURUA

1.2 SARRERA

Hiri hondakinen kudeaketaren esparruan lege testuak onartzeak eta administrazio publikoek hondakin horien kudeaketa egokia egiteko konpromisoak (ingurumenaren errespetuaren esparruan) agerian jartzen dute helburu batzuk zehaztu behar direla eta hiri hondakinen arloan jarduera programa batzuk ezarri behar direla, lurralde bakoitzaren errealitateari egokitu.

Dokumentu honen helburua ez da Arabako Lurralde Historikoan 2006-2016 epean hiri hondakinen kudeaketaren esparruan aritzeko beharrezkoak diren jarduera zehatzak ezartzea.

Dokumentu honen xedea den Planak Arabako Lurralde Historikoko Hondakinak Kudeatzeko 1998-2001 Planari jarraipena ematen dio.

Dokumentu hau egiteko, aurreko dokumentuan lurraldeari egokitutako hondakinen kudeaketa egiteko ezarri ziren zedarrak hartu dira kontuan, bai eta hondakinen arloko arautegia eta gaur egungo hondakinen kudeaketa ere. Proposatutako jarduerak, egin zirenak eta egin ez zirenak, aztertu dira, ez egitearen arrazoiak zein izan ziren argitzeko eta berriz proposatzea beharrezkoa ote den ala ez zehazteko, edo, bestela, jarduera horiek aldatzeko edo guztiz kentzeko, Plan honetan bilduko diren proposamenen arabera.

Era berean, Arabako gizartearen kontsumo eta birziklatze ohituren ikuspegi eguneratutik eta objektibotik abiatuta ezarri behar da Planaren errealitatea, eta horrexegatik, hain zuzen ere, egin zen etxeetako hondakinen konposizio eta analisiaren inguruko azterketa, 8 hilabetez eta bi hilabete behin.

Azkenik, Planaren oinarriak ezartzerakoan arreta jarri zaie Hiri Hondakinen Plan Nazionalak eta Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) proposatutakoari.

Halaber, EAEko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Esparru-Planifikazio egiteko jarraibideei buruz zirriborroak ezarritako eginbeharrak kontuan hartu dira, nahiz eta dokumentu hau 2006rako aurreikusitako den EAEko Hiri Hondakinen Plana idazteko alde aurretiko azterketari dagokion.

Planaren helburuak 5. kapituluan zehazten dira ("Jarduteko estrategia" izenekoan) eta, ondoren, hainbat jarduera programetan. 6. kapituluan azaltzen dira jarduera programa horiek, jarduerak bete daitezkeen aurreikusitako diren ekintzekin batera.

1.2 TESTUINGURUA

Arabako Foru Aldundiak idatzi eta gerora ezarriko duen Arabako Lurralde Historikoko Hondakinen Plana **Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Legearen 70 eta 74. artikuluetan** adierazitako eskumenetatik abiatuta egin da. Hona hemen artikuluen horiek:

"70. artikulua.- Aurreko atalean adierazitako printzipioak benetan eraginkorrak izan daitezkeen, administrazio publikoek hondakin-planak egingo dituzte, eta bertan, besteak beste, lortu beharreko helburuen, garatu beharreko estrategien, azpiegiturak sortzearen eta finantzaketa-sistemen zehaztasunak azalduko dira.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

74.artikularia.-. *Lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak.*

*Hiriko hondakin solidoen arloan, lurralde historikoetako foru-organoei dagozkien ondoko eskumenak: a) **Lurralde historiko bakoitzean hiriko hondakin solidoen esparru-plangintza beren foru-planen bidez garatzekoa.***

*b) **Lurralde historiko bakoitzeko esparruan udal jarduerak koordinatzekoa, arlo honetan zerbitzuak era osatuan betetzearen.***

*c) **Hondakinak kudeatzeko udalaz gaindiko azpiegiturak bultzatzekoa.***

Horregatik, Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Planaren bidez, Arabako Foru Aldundiak erantzuna eman nahi die aplikatzekoa den EAEko arautegian ezarritako lege betebeharrei.

EAEko legediak zehazten duen Planaren testuinguruko abiapuntuaz gain, sortutako hiri hondakinak era egokian kudeatzeko tresnen diseinua ere Europako Zuzentzauek osatzen duten legeetatik eta Espainiako estatuko legeditik dator, ondoren azaltzen den moduan.

91/156/EEE Zuzentzarauan, Hondakinaren Esparru-Zuzentzaraua izenekoan, hau ezartzen da 3. artikuluan:

“Batasuneko kide diren estatuak beharrezko neurriak hartuko dituzte honako hau sustatzeko:

*a) **lehenik eta behin, hondakinak sortzea eta hondakinaren kaltegarritasuna prebenitzea edo murriztea.***

*b) **bigarrenik, birziklatuz, beste erabilera bat emanez, berreskuratuz edo bigarren mailako lehengaiak lortzera bideraturiko beste edozein jarduera erabiliz hondakinak balorizatzea, edo hondakinak energia iturri gisa erabiltzea.***

Hauek dira Europako Batasunak hondakin solidoen kudeaketaren inguruko VI. Esparru-programan aurkeztutako jarraibideen funtsezko jardunbideak:

- Prebenitzea eta berrerabiltzea
- Gaikako bilketa egitea
- Berreskuratzea eta birziklatzea
- Birziklatze merkatuak irekitzea

Eta azkenik, Espainiako estatuaren eremuan, hau ezartzen du hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/98 Legeak 5. artikuluan:

“Tokian tokiko erakundeek beren hiri hondakinak kudeatzeko planak egin ahal izango dituzte, legedian ezarritakoaren eta dagokien autonomia erkidegoko hondakinaren planetan ezarritakoaren arabera.”



74.artikularia.-. *Lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak.*

Hiriko hondakin solidoen arloan, lurralde historikoetako foru-organoei dagozkien ondoko eskumenak: a) Lurralde historiko bakoitzean hiriko hondakin solidoen esparru-plangintza beren foru-planen bidez garatzekoa.

b) Lurralde historiko bakoitzeko esparruan udal jarduerak koordinatzekoa, arlo honetan zerbitzuak era osatuan betetzearen.

c) Hondakinak kudeatzeko udalaz gaindiko azpiegiturak bultzatzekoa.”

Horregatik, Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Planaren bidez, Arabako Foru Aldundiak erantzuna eman nahi die aplikatzekoa den EAEko arautegian ezarritako lege betebeharreri.

EAEko legediak zehazten duen Planaren testuinguruko abiapuntuaz gain, sortutako hiri hondakinak era egokian kudeatzeko tresnen diseinua ere Europako Zuzentzauek osatzen duten legeetatik eta Espainiako estatuko legeditik dator, ondoren azaltzen den moduan.

91/156/EEE Zuzentzarauan, Hondakinaren Esparru-Zuzentzaraua izenekoan, hau ezartzen da 3. artikuluan:

“Batasuneko kide diren estatuak beharrezko neurriak hartuko dituzte honako hau sustatzeko:

a) lehenik eta behin, hondakinak sortzea eta hondakinaren kaltegarritasuna prebenitzea edo murriztea.

b) bigarrenik, birziklatuz, beste erabilera bat emanez, berreskuratuz edo bigarren mailako lehengaiak lortzera bideraturiko beste edozein jarduera erabiliz hondakinak balorizatzea, edo hondakinak energia iturri gisa erabiltzea.”

Hauek dira Europako Batasunak hondakin solidoen kudeaketaren inguruko VI. Esparru-programan aurkeztutako jarraibideen funtsezko jardunbideak:

- Prebenitzea eta berrerabiltzea
- Gaikako bilketa egitea
- Berreskuratzea eta birziklatzea
- Birziklatze merkatuak irekitzea

Eta azkenik, Espainiako estatuaren eremuan, hau ezartzen du hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/98 Legeak 5. artikuluan:

“Tokian tokiko erakundeek beren hiri hondakinak kudeatzeko planak egin ahal izango dituzte, legedian ezarritakoaren eta dagokien autonomia erkidegoko hondakinaren planetan ezarritakoaren arabera.”



3 PLANAREN APLIKAZIO EREMUA

3.1 LURRALDE EREMUA

Arabako Lurralde Historikoa zazpi kuadrillek edo foru lurraldeko erakundek osatzen dute. Kuadrillek eurek biltzen dituzten udalerrien garapena eta ongizatea babesten dute (eskualde bakoitzeko interesen ordezkariak dira; beren eskualdeko antolakuntzari eta baliabideei dagozkien interesak defendatzen dituzte).

Kuadrillen funtzioetako bat euren lurralde eremuan eragiten duten denen intereseko gaiak sustatu eta kudeatzea da. Besteak beste, funtzioen artean hondakinaren kudeaketari dagozkion eskualdeko zerbitzuak administratzea dago.

Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planak lurraldeko zazpi kuadrilletan sortutako hiri hondakinaren kudeaketa hartzen du barne. Esan beharra dago Vitoria-Gasteizko Udalak bere Hiri Hondakinak Kudeatzeko Udal Plana duela.



Populazioa

Jarraian, Planaren barnean sartzen diren kuadrilletako populazioaren datuak azaltzen dira udalerrika. Datuak ez dira berdinak urte osoan zehar; udan desberdinak dira.

Kuadrilla bakoitzeko udaletako erroldetatik hartu dira datuak.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Pinturak, bernizak eta disolbatzaileak
- Intsektizidak eta parasito-kontrakoak
- Etxeetako olio mineralak
- Gehigarriak eta automobilgintzako beste fluidoak
- Erabilera terapeutikoa duten sendagaiak eta produktuak
- Hondakin elektrikoak eta elektronikoak
- Erabilitako pila eta metagailuak

Azkenik, Plan honen aplikazio-eremutik erabat kanpo gelditzen dira, duten berezitasunagatik, berariazko irtenbideak eskatzen dituzten hondakinak; horrelako hondakinentzat berariazko planak egin beharko dira. Hauek dira:

- Erabileraz kanpo dauden ibilgailuak (EKI)
- Erabileraz kanpo dauden pneumatikoak (EKP)
- Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak (10/98 Legean HHen barruan sailkatu ez direnak)
- Hiltegietatik datozen animalien hondakinak eta erraiak, konfiskazioak, haragi azpiproduktuak eta animalia hilak
- Udal araztegiatiko buztin eta lohiak
- Nekazaritza eta abeltzaintzako hondakin ez organikoak

Gaur egun nekazaritza eta abeltzaintzako hondakin ez organikoek dagokien Plana egiten ari da, eta gorago aipaturiko beste berariazko planak pixkanaka-pixkanaka idatziko dira Planaren indarreko urteetan zehar.

2.3.2. Hondakinen sailkapena

HHak sailkatzeko Europako Batasuneko indarreko zuzentarauetan eta apirilaren 21eko 10/1998 Hondakinen Oinarrizko Legean zehaztutako jarraibideei eta irizpideei jarraitu zaie.

Ondorengo taula honetan azaltzen da sailkapena, hiru irizpide kontuan hartuta: jatorria, konposizioa eta tratamendu posiblea.

SAILKAPENA			
JATORRIAREN ARABERA	KONPOSIZIOAREN ARABERA		TRATAMENDU POSIBLEAREN ARABERA
EH	GB	Papera	BALORIZAZIOA
		Ontziak (metal eta plastikoeekin)	BALORIZAZIOA
		Beira	BALORIZAZIOA
		Landare-olioak	BALORIZAZIOA
		TEEH	BALORIZAZIOA
		Oihalak	BALORIZAZIOA
		Zurak	BALORIZAZIOA
		EHA (pilak barne)	EZABATZEA
		Sendagaiak	EZABATZEA
		Organikoa	KONPOSTATZEA
	BGB		EZABATZEA

Iturria: berariaz landua

Taulako terminoen definizioa:

EH: Etxeetako Hondakinak

GB: Gaikako Bilketa

TEEH: Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak

EHA: Etxeko Hondakin Arriskutsuak

BGB: Bereizi Gabeko Bilketa



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

SAILKAPENA				
JATORRIAREN ARABERA		KONPOSIZIOAREN ARABERA		TRATAMENDU POSIBLEAREN ARABERA
IMIHA	GB	Papera		BALORIZAZIOA
		Ontziak (metal eta plastikoeekin)		BALORIZAZIOA
		Beira		BALORIZAZIOA
		Landare-olioak		BALORIZAZIOA
		TEEH		BALORIZAZIOA
	Zurak		BALORIZAZIOA	
	BGB			EZABATZEA
ILH				KONPOSTATZEA
BGH				EZABATZEA
EKI				BALORIZAZIOA
Hh				BALORIZAZIOA
AL				KONPOSTATZEA/EZABATZEA
EEH	BGB	Indusketako material, lur eta harkaitzen bereizketa mekanikoa		BALORIZAZIOA
		Gainerakoa		EZABATZEA
	GB	Plastikoak, zurak		BALORIZAZIOA

Iturria: berariaz landua

Taulako terminoen definizioa:

IMIHA: Industria, Merkataritza eta Instituzioetako Hondakin Asimilagarriak

GB: Gaikako Bilketa

TEEH: Tresna Elektroko eta Elektronikoen Hondakinak

BGB: Bereizi Gabeko Bilketa

ILH: Inausketa eta Lorezaintzako Hondakinak

BGH: Bideen Garbiketako Hondakinak

EKI: Erabileraz Kanpo dauden Ibilgailuak

Hh: Hondakin handiak

AL: Araztegietako Lohiak

EEH: Eraikuntza eta Eraispeneko Hondakinak

GB: Gaikako Bilketa

BGB: Bereizi Gabeko Bilketa

3 JARDUERA ESPARRUA

3.1 LEGE ESPARRUA

Hondakinen kudeaketa lege-egitura zabal eta oparo baten barruan kokatzen da; hainbat lurralde-eremutan ditu erreferentziak (Europako Batasuna, Espainiako estatua, EAE, lurralde historikoa eta udalerrria), eta aplikazio-eremu ugari ditu, halaber, hondakin motaren arabera. Jarraian, aipatutako eremuetako eduki nagusiak laburtuko ditugu, Planaren jarduera-estrategia ezartzeko beharrezkoa den jardueren lege-esparrua zehazteko.

3.1.1. Legedi orokorra

EUROPAKO BATASUNA

75/442/EEE Zuzentaraua 1975. urtean onartu zen, eta bere helburua Europako Batasunaren esparruan hondakinen kudeaketa arautzea da (garai hartan Europako Batasuna Europako Ekonomia Erkidegoa zen). Zuzentarau hori arau orokor bat da, eta hondakinei buruzko bestelako xedapen guztiek hara bidaltzen dute. Izan ere, hondakinen kudeaketaren oinarriko kontzeptu nagusiak definitzen ditu, eta horrexegatik deitzen da esparru-zuzentaraua, nahiz eta juridikoki sailkapen horrek garrantziarik ez izan.

Jatorrizko testua zientziaren egoerara eta Europako Batasuneko herrialdeetan aurrera eramandako praktiketara egokitzeko, Zuzentaruak hainbat aldaketa pairatu ditu. Ondoren aldaketa horietako batzuk aipatuko ditugu, hain zuzen ere, erakunde eskudunen jardueraren printzipioekin lotura duten gaiak jorratzen dituzten batzuk:

91/156/EEE Zuzentaraua. Aldaketa honek hondakinen kudeaketan lehentasun-irizpide batzuk ezarri zituen, eta, hala, politika ekonomiko eta industrialak eta lurralde-politikak hondakinen politikekin koordinatu eta ingurumenaren babesean lagundu zuen. Koordinatze horrekin lortu nahi zena zen hondakinak jatorrian murriztea eta hondakinen berrerabiltze, birziklatze eta balorizazioari lehentasuna ematea beste kudeaketa-teknika batzuen aurrean. Zehazki, 3. artikuluan agintari eskudunak neurri egokiak hartzea behartzen ditu hau sustatu ahal izateko:

a) lehenik eta behin, hondakinak sortzea eta hondakinen kaltegarritasuna prebenitzea edo murriztea, bereziki hauen bidez:

- i) teknologia garbiak garatzea eta baliabide naturaletan gehiago aurrezte ahalbidetzen duten teknologia garatzea;
- ii) fabrikatze, erabiltze edo ezabatze ezaugarriengatik hondakinen eta poluitze arriskuen kopurua edo kaltegarritasuna bultzatzen ez duten, edo ahalik eta gutxien bultzatzen duten, produktuak teknikoki garatzea eta merkaturatzea;
- iii) balorizazioa bideraturiko hondakinetan dauden substantzia arriskutsuak ezabatzeko teknika egokiak garatzea;

b) bigarrenik:

- i) birziklatuz, beste erabilera bat emanez, berreskuratuz edo bigarren mailako lehengaiak lortzea bideraturiko beste edozein bideren bitartez hondakinak balorizatzea, edo
- ii) hondakinak energia iturri gisa erabiltzea.

Kontseiluaren Ebazpena, 1990eko maiatzaren 7koa, hondakinen inguruko politikari buruzkoa. Ebazpen horretan berriro ere aitortzen da hobe dela berariazko hondakin moten arabera jardueraren planak ezartzea prebentzioaren (birziklatzea eta berrerabiltzea) nahiz azken ezabatzearen ikuspuntutik. **Horren barruan, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana idazteko eta ezartzeko Arabako Foru Aldundiak duen betebeharra zehazten da.**

Azkenik, Europako esparruan **hondakinei buruzko 2006/12/EE Zuzentaru**an onartu da; Zuzentaru horretako 3. artikulua Europako kide diren estatuak neurri egokiak hartzea behartzen ditu honako hau sustatzeko:

- a) lehenik eta behin, hondakinak sortzea eta hondakinen kaltegarritasuna prebenitzea edo murriztea, bereziki ondorengo jarduera hauek eginez: teknologia garbiak garatzea eta baliabide naturaletan gehiago aurrezte ahalbidetzen duten teknologia garatzea; fabrikatze, erabiltze edo ezabatze ezaugarriengatik hondakinen eta poluitze arriskuen kopurua edo kaltegarritasuna bultzatzen ez duten, edo ahalik eta gutxien bultzatzen duten, produktuak teknikoki garatzea eta merkaturatzea; balorizazioa bideraturiko hondakinetan dauden substantzia arriskutsuak ezabatzeko teknika egokiak garatzea.



- b) bigarrenik, birziklatuz, beste erabilera bat emanez, berreskuratuz edo bigarren mailako lehengaiak lortzera bideraturiko beste edozein jarduera erabiliz hondakinak balorizatzea, edo hondakinak energia iturri gisa erabiltzea.

5. artikuluan ezarritakoaren arabera, Europako kide diren estatuak beharrezko neurriak hartuko dituzte, gomendagarria edo beharrezkoa bada beste estatu kideekin lankidetzan, ezabatze instalazioen sare integratu eta egoki bat sortzeko, oso garestiak ez diren eta erabilgarri dauden teknologia berriak kontuan hartuta. Sare horrek hondakinaren ezabatze arloan buru askia izatea ahalbidetu beharko dio Erkidego osoari, bai eta estatu bakoitzari bere kasa helburu hori lortzera bidean jartzea ere.

Bestalde, gorago aipatutako helburuak bete ahal izateko xedatzen da eskumena duten agintariak behartuta egongo direla ahal bezain laster hondakinaren kudeaketari buruzko plan bat edo gehiago ezartzera, **hala nola, Arabako Foru Aldundiak dokumentu honetan idatzi duena**. Plan horietan gai hauek landuko dira bereziki:

- a) balorizatu edo ezabatu beharreko hondakinaren motak, kopuruak eta jatorriak;
- b) agindu tekniko orokorrak;
- c) hondakin zehatzei buruzko xedapen berezi guztiak;
- d) hondakin horiek tratatzeko toki edo instalazio egokiak.

Era berean, adierazitako planak ezartzeko Batasuneko kide diren estatuak beren artean eta Erkidegoarekin lankidetzan jardungo dutela eta ondoren Erkidegoari jakinaraziko dietela ezartzen du agindu horrek, eta, hortaz gain, beren hondakinaren kudeaketa-planei atxikitzen ez diren hondakin mugimenduak saihesteko beharrezko neurriak hartu ahal izango dituztela.

Hondakinaren kudeaketari buruzko arautegi orokorra hondakinaren isurketa arautzen duen lege-erreferentziarekin osatzen da: **1999/31/EE Zuzentaraua**, hondakinaren isurketari buruzkoa, eta **2003/1882/EE Araudia**, zabortegetan hondakinak onartzearen inguruko betebeharrak tekniko eta operatiboak, mugak, irizpideak eta prozedurak ezartzen dituena.

ESPAINIAKO ESTATUA

10/98 Legeak, Espainiako estatuaren lurralde-eremuan, hondakinak kudeatzeko Erkidegoan ezarri diren politika eta jarduerak printzipioak jasotzen ditu, gai horren inguruan 91/156/EEE Zuzentarauak eragindako aldaketa esanguratsuen ondoren. Hala, hondakin guztien ekoizpenaren eta kudeaketaren erregimen juridikoa ezartzen du lege horrek, atmosferara egindako emisioena, hondakin erradioaktiboa, isurketa likidoa eta lurzoru poluituetako hondakinena izan ezik; betiere ingurumena eta gizakion osasuna babestea da helburua.

Estatuko Administrazio Orokorrak hondakinaren plan nazionalak egin behar dituela ezartzen du Legeak, eta plan horietan murrizketa, berrerabilpen, birziklapen eta bestelako balorizazio-moduen eta, hala badagokio, ezabaketaren berariazko helburuak ezarri beharko direla. 5. artikulua adierazten duenez, ordea, plan horiek autonomia erkidegoen planen integrazioetik etorriko dira, baina tokiko erakundeei hiri hondakinak kudeatzeko beren planak egiteko aukera izango dute, halaber, autonomia erkidego bakoitzeko hondakinei buruzko arautegietan eta planetan ezarritakoaren arabera. **Esparru horren barruan, Arabako Foru Aldundiaren eginkizuna da Arabako Hondakinak Kudeatzeko Plana egitea, eta hori da, hain zuzen, dokumentu honen xedea.**

Bestalde, lege horrek hondakinaren kudeaketaren arloan tokiko erakundeei ezartzen dizkien betebeharrak batzuk aldaketa eragiten dute Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean ezarritako erregimen orokorrean. Hala, tokiko erakundeei esleitzen zaie, nahitaezko zerbitzu gisa, hiri hondakinaren tratamendua. 10/98 Legeak betebeharrak horiek zabaltzen ditu, eta hau ezartzen du: 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek hiri hondakinak gaika biltzeko zerbitzu bat ezarri beharko dute 2001. urtetik aurrera (20. artikulua).

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorrak, ingurumenaren babeserako arautegia ezarri eta pertsonen eskubideak eta eginbeharrak zehazten ditu.

Lege eskumenen esparruari dagokionez, III. tituluko IV. kapituluan hondakinak arautzen ditu, hondakinak horrela ulertuta: jabeak alde batera uzten dituen edo alde batera uzteko asmoa edo betebeharra duen edozein substanzia edo objektu¹.

69. artikulua adierazten duenez, Autonomia Erkidegoaren arlo honetako politika ondorengo printzipio hauetan oinarritzen da (hierarkiaren arabera ordenatuta):

- a) jatorrian prebenitu eta minimizatzea, eta produkzioa eta kaltegarritasuna murriztea.
- b) berrerabiltzea, birziklatzea eta balorizatzeko zein zikloak ixteko beste edozein forma sustatzea.
- c) balorizatu ezin daitezkeen hondakinak egoki deuseztatzea eta egoki kudeatzeko behar diren bitartekoak ezartzea.

Hondakin planak

70. artikulua arabera, aipatutako printzipioak benetan eraginkorrek izan daitezkeen, administrazio publikoek hondakin-planak egingo dituzte, eta bertan, besteak beste, lortu beharreko helburuen, garatu beharreko estrategien, azpiegiturak sortzearen eta finantzaketa-sistemen zehaztasunak azalduko dira.

Hiri Hondakinaren gaian esku-hartzeari dagokienez, 74. artikuluan xedatzen denez, hauek dira foru aldundiko organoen eginbeharrak:

- a) lurralde historiko (LH) bakoitzean hiri hondakin solidoen esparru-plangintza beren foru-planen bidez garatzea.
- b) lurralde historiko bakoitzeko esparruan udal jarduerak koordinatzea, arlo honetan zerbitzuak era osatuan betetzearen.
- c) hondakinak kudeatzeko udalez gaindiko azpiegiturak bultzatzea.

Berariazko hondakin multzoei lotutako legedia

MATERIA BIODEGRADAGARRIAREN KUDEAKETA

Apirilaren 26ko Kontseiluaren 1999/31/EE Zuzentarauak, hondakinaren isurketari buruzkoak, hondakinak zabortegian utzita ezabatzea arautzeko erregimen zehatz bat ezartzen du. Espainiako Estatuan Zuzentarau horrek duen aplikazioa hondakinak zabortegian utzita ezabatzea arautzen duen **1481/2001 Errege Dekretuaren** bidez gauzatzen da. Errege Dekretu horrek hondakinak ezabatzeko jarduerentzako, zabortegien ezaugarrientzako eta zabortegiak ondo kudeatzeko eta ustiatzeko esparru juridiko eta tekniko egokia ezartzen du, gorago aipaturiko 10/1998 Legearen 1.1 artikuluan jasotako hondakinaren kudeaketaren lehentasun-printzipioaren arabera.

Errege Dekretuak ondorengo premisa hauek ezartzen ditu:

- a) Gehienez ere 2006ko uztailaren 16a baino lehen, zabortegira bideraturiko hiri hondakin biodegradagarrien guztizko kopurua (pisua) ez da 1995. urtean sortutako hiri hondakin biodegradagarrien guztizko kopuruaren 100eko 75 baino handiagoa izango.
- b) Gehienez ere 2006ko uztailaren 16a baino lehen, zabortegira bideraturiko hiri hondakin biodegradagarrien guztizko kopurua (pisua) ez da 1995. urtean sortutako hiri hondakin biodegradagarrien guztizko kopuruaren 100eko 50 baino handiagoa izango.
- c) Gehienez ere 2006ko uztailaren 16a baino lehen, zabortegira bideraturiko hiri hondakin biodegradagarrien guztizko kopurua (pisua) ez da 1995. urtean sortutako hiri hondakin biodegradagarrien guztizko kopuruaren 100eko 35 baino handiagoa izango.

ONTZIAK

Martxoaren 3ko **252/2006 Errege Dekretuak** hein batean moldatu egiten du **2004/12/EE Zuzentaraua** (94/62/EE Zuzentaraua, ontziei eta ontzien hondakinei buruzkoa, aldatzen zuena). Errege Dekretuak apirilaren 24ko ontziei eta ontzien hondakinei buruzko 11/1997 Legean ezarritako birziklapen eta balorizazio helburuak berrikusten ditu:

- a) gehienez ere 2001eko ekainaren 30a baino lehen, hondakinak errausteko instalazioetan ontziak balorizatu edo erraustea, eta ontzien hondakinen pisuaren gutxienez % 50 eta gehienez % 65 energia balorizatzea;
- b) gehienez ere 2008ko abenduaren 31a baino lehen, hondakinak errausteko instalazioetan ontziak balorizatu edo erraustea, eta ontzien hondakinen pisuaren gutxienez % 60 energia balorizatzea;
- c) gehienez ere 2001eko ekainaren 30a baino lehen, ontzien hondakinen artean dauden ontziratutako materialen pisuaren gutxienez % 25 eta gehienez % 45 birziklatzea; ontziratutako material bakoitzarentzat gutxienez %15 izango da pisuan;
- d) gehienez ere 2008ko abenduaren 31 baino lehen, ontzien hondakinen pisuaren gutxienez % 55 eta gehienez % 80 birziklatzea;
- e) gehienez ere 2008ko abenduaren 31 baino lehen, ontzien hondakinen artean dauden materialen birziklapen helburu minimo hauek lortzea: beira, paper eta kartoiaren % 60, metalen % 50, plastikoen % 22,5 eta zuraren % 15.

Orain arte ontzien eta ontzien hondakinei buruzko gaiak 11/97 Legearen eta bere arautegiaren bitartez jorratu dira, ontzien ingurumen eragina eta ontzien bizitza osoan zehar ontzien hondakinen kudeaketa prebenitzeko eta murrizteko. Horien artean merkatuan dauden eta Espainiako estatuaren lurraldean sortutako ontziak eta ontzien hondakinak sartzen dira. Lege hori aldatu egin beharko da Europako **2004/12/EE** Zuzentarau berria onartzen denean.

15. artikuluan xedatzen denez, bildu eta ondoren kudeaketa sistema integratuetara eraman diren ontzien hondakinen kopurua eta ontzi erabilien kopurua jakinaraziko dute tokiko erakundeek, bai eta azkenean ezabaketara bideratu diren kopuruak ere. 2. puntuan zehazten denez, informazioa jasotzen duen administrazioak ondo multzokatuko du informazio hori, eta ontzien eta ontzien hondakinei buruzko datu-base bat egingo du, IV. eranskinean aipatzen den informazioa jasoko duena. Hala, jarduera-eremuaren barruan ontzi eta ontzi hondakinen korronteen tamaina, ezaugarriak eta garapena ezagutzea ahalbidetuko du, bai eta 11/1997 Legean ezarritako helburuak betetzearen kontrolaren nondik norakoak ere.

17. artikulua ondorengo hau zehazten du ontzi hondakinen eta ontzi erabilien kudeaketa plangintzaren inguruan:

1. Autonomia erkidegoko planek, ontzien eta ontzi hondakinei buruzkoek, legez adierazitako helburuak betetzeko beharrezko neurriak jasoko dituzte.
2. Helburuak bete daitezen lortzeko Estatuaren Administrazio Orokorraren partaidetza Hiri Hondakin Solidoen Plan Nazionalaren jarraipen- eta kontrol-mekanismoen esparruan egingo da.
3. Autonomia Erkidegoek tokiko erakundeen eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen partaidetza-mekanismoak zehaztuko dituzte beren programa autonomikoa martxan dagoela jakiteko egiten den jarraipenean.

TRESNA ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK (TEEH)

Tresna elektriko eta elektronikoaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuaren bidez, neurriak ezartzen dira I. eranskinean adierazitako kategorietako tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak (TEEH) sortzea prebenitzeko eta, hortaz gain, hondakin horien berrerabilpena, birziklapena eta bestelako balorizazio moduak sustatzeko, isurketa bidez hondakin horien

ezabaketa murrizteko. Hiri hondakin ez hautatu gisa TEEHen ezabaketa minimora jaisteko eta gaikako bilketaren maila altua lortzeko neurri egokiak hartzeko beharra ezartzen du 5. artikulua.

ERABILERAZ KANPO DAUDEN IBILGAILUAK (EKI)

2000/53/EE Zuzentarauak, bizitza erabilgarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa, eta **2002/525/EE Erabakiak** neurriak ezartzen dituzte, lehenik, ibilgailuetatik datozen hondakinak prebenitzeko eta, ondoren, bizitza erabilgarriaren amaieran dauden ibilgailuak berrerabili, birziklatu eta bestelako balorizazio mota bat eman ahal izateko. Horrela hondakin ezabaketa murriztu nahi da eta ibilgailuen bizitzan esku hartzen duten eragile ekonomikoaren ingurumen babesaren eraginkortasuna hobetu, bai eta, zehazkiago, bizitza erabilgarriaren amaieran dauden ibilgailuen tratamenduan zuzenean esku hartzen dutenena ere. Bizitza erabilgarriaren amaieran dauden ibilgailuen kudeaketari buruzko **1383/2002 Errege Dekretuaren** bitartez egokitu ziren betebeharrak Espainiako estatura.

ERAIKUNTZA ETA ERAISPENEN HONDAKINAK (EEH)

Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin kudeaketaren inguruko arautegi berezirik ez da orain arte egin Europako Batasunaren esparruan. Espainiako estatuan, ordea, 2001eko ekainaren 14an, **Eraikuntza eta Eraispeneko Hondakin Plan Nazionala 2001-2006** onartu zen. Planaren helburua hauxe da: EEH inerte edo asimilatuen ingurumen-kudeaketa egokia egiteko oinarri eta xede ekologikoak ezartzea. EEH bezala ulertzen dira gehien bat etxeak eraistetik edo beste instalazio berriak eraikitetik datozen eraikuntza-material utziak edo etxeen edo urbanizazioen berritze-lan txikietatik datozen eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak.

EAEren esparruan, **423/1994 Dekretuak**, hondakin inerte eta inertizatuen kudeaketari buruzkoak, ezartzen du hondakin inerte eta inertizatuen kudeaketa jarduerari aplikatu dakioken erregimen juridikoa. Erregimen horrek EAEko eremuan isurketa kontrolatuaren bidez hondakin horiek ezabatzea jasotzen du. Ondorio horietarako, hondakin inerteak dira behin zaborte-gira isurita aldatuta fisiko-kimiko edo biologiko esanguratsurik jasaten ez duten eta toxiko edo arriskutsutzat hartzen ez diren hondakin solido edo oretsua. Horien barruan sartzen dira eraikuntzako hondakin inerteak, eta eraikuntzako hondakin horien barruan eraikuntza, eraispen, indusketa eta lur mugimenduetako jardueretatik datozenak. Eraikuntzako hondakin inerteak zabalago azaltzen dira II. eranskinean. Dekretua **1995eko otsailaren 15eko Aginduak** osatzen du, hondakin inerte edota inertizatuen zaborte-gien, lurren betetzeen eta egokitzapenen instalazioei buruzko proiektu tekniko eta azalpen-memoriei buruzkoak.

3.2 GAIARI LOTUTAKO PLANAK, JARRAIBIDEAK ETA ESTRATEGIAK

Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakin kudeaketaren aplikazio-printzipioak baldintzatzen dituzten lege-betebeharrez gain, 2006-2016 Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planak sinergiak jaso eta sortzen ditu indarrean dauden hainbat plan eta estrategiek. Plan eta estrategia horiek hiri hondakin kudeaketari buruzko joerak eta helburuak ezartzen dituzte garapen-maila desberdina dute lurralde-eremuetan. Horregatik, oso garrantzitsua da eragin-eremu nagusiak eta dauden plan eta estrategiek Plan honekin ezarri dituzten harremanak ezagutzea, aurreikusitako jardueretan koherentzia gorde ahal izateko.

Horrela bada, hauek dira kontuan hartu beharreko erreferentzia nagusiak:

3.2.1. Jarduerari buruzko Seigarren Esparru Programa. Hondakin kudeaketarako gaikako estrategia

Erkidegoko Jarduerarako IV. Programak Europako Batasunaren Garapen Iraunkorrerako ingurumen estrategia zein den zehazten du, eta lehenetsitako eremu hauetan multzokatutako helburuetara bideratzen da: klima-aldaketa, natura eta biodibertsitatea, ingurumena eta osasuna, baliabideen erabilera iraunkorra eta hondakin kudeaketa.

Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari lotuta, ondorengo helburu hauek ezartzen ditu programak:

- Hondakinen sorkuntza hazkunde ekonomikotik bereiztea eta hondakin bolumenaren murrizketa orokor esanguratsu bat lortzea eta hondakinen prebentziorako ekimen hobeagoen bidez sortzea hondakinak, baliabideak era eraginkorragoan erabiltzea eta kontsumorako jarraibide iraunkorragoetarantz egitea.
- Sortzen jarraituko duten hondakinei dagokienez, horrelako egoerak erdiestea:
 - hondakinak arriskutsuak izan ez daitezela edo, gutxienez, ingurumenarentzat eta osasunarentzat arrisku oso txikiak izan ditzatela;
 - hondakin gehien-gehienak ziklo ekonomikoa sar daitezela berriro, bereziki birziklapenaren bidez, edo ingurumenera itzul daitezela era erabilgarri batean (adibidez, konsposta) edo era ez kaltegarrian.
 - behin betiko ezabatzeko beharra duten hondakin kopuruak minimo absolutura jaitsi daitezela eta segurtasun osoz ezaba daitezela;
 - hondakinak sorkuntza-gunetik ahalik eta gertuen trata daitezela

Plan honekin zuzenean loturiko xede kuantifikatu gisa, VI. programak behin betiko ezabatzera bideraturiko hondakinen kopurua hemendik 2010era % 20 murriztea proposatzen du, eta hemendik 2050era % 50; konparaketa 2000ko zifrekin egin da.

Dokumentu honetan VI. programan aurreikusitako gaikako zazpi estrategiak garatzen dira, eta horien artean aurki dezakegu, hain zuzen, hondakinen kudeaketari buruzko estrategia.

3.2.2. Hiri Hondakinen Plan Nazionala 2000-2006

Hiri Hondakinen Plan Nazionala hondakinei buruzko 10/98 Legearen 1.1 artikuluan jasotako printzipioetan oinarritzen da, eta bere xede nagusiak hauek dira: hondakinen produkzioa prebenitzea, hondakinak kudeatzeko sistemak ezartzea eta, ordena honetan, murrizketa, birziklatzea eta beste balorizazio moduak sustatzea.

Planaren barruan hiri hondakin edo udal hondakin hauek sartzen dira: etxebizitza partikularretan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutakoak, bai eta arriskutsu kalifikazioa ez duten beste guztiak ere, baina izaera eta konposizioa kontuan hartuta lehen aipatu ditugun lekuetan edo jardueretan sortzen diren hondakinekin asimilagarriak direnak. Plan Nazionalak Espainia osoan hondakin horiekin zerikusia duten jarduera guztiak biltzen ditu, eta Planaren barnean barnean dira, halaber, jadanik landutako autonomia erkidegoetako planak. Planaren epemuga 2000. urtetik 2006. urtera arte (biak barne) zabaltzen da.

Plan Nazionalaren gidari diren printzipioen esparruan, hauek dira helburu nagusiak:

- HHen kopuruaren eta arriskugarritasunaren murrizketa sustatzea.
- HHak, eta bereziki ontzien hondakinak, gehiago berrerabiltzea, birziklatzea eta balorizatzea.
- Egungo azpiegiturak indarrean dagoen legedira egokitzea, bai eta epe motzean hondakinen arloan sortu daitekeen legedi berrira ere.
- HHen artean dagoen materia organikoa balorizatzea.
- Hondakinak kudeatzeko azpiegituren sare bat sortzea.
- HH ez balorizagarrien zatia zaborte-gira azkenengoz isurtzea mugatzea edo guztiz ezabatzea.
- Isurketa kontrolatugabeengatik narriatutako guneak berreskuratzea eta lehengoratzea.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Lankidetzan eta kudeaketan eragina duten pertsona, enpresa, erakunde eta instituzioen artean banatutako erantzukizunean oinarritutako finantzazio-eredu bat ezartzea, eta horretarako tresna ekonomiko egokiak ezartzea.
- 2006ko abenduaren 31 baino lehen, 1.000 biztanle baino gehiagoko herrigune guztietan gaikako bilketa ezartzea.
- HHen inbentarioa, datu-basea eta informazio-sistema sortzea.
- Informazio eta sentsibilizazio kanpainak sustatzea.

Oinarritzko helburu horiek Plan Nazionala osatzen duten zenbait programen bidez gauzatzen dira:

- Prebentzio programa nazionala.
- Berreskuratze eta birziklatze programa nazionala.
- Ontzi hondakinen eta ontzien programa nazionala.
- Konpostatze programa nazionala.
- Energia balorizatze programa nazionala.
- Ezabatze programa nazionala.
- Sentsibilizazio publikorako eta kontzientziaziorako programa.
- Langile espezializatuak prestatzeko programa.

Hondakinen Plan Nazionala, beraz, Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren erreferentzia puntu argia da. Izan ere, Arabako Planeko jarduerak Plan Nazionalan ezarritako jarraibide, lehentasun eta irizpideak jarraitu behar dituzte, eta, gainera, Espainiako programekin koherenteak izan beharko dute Arabarako egin den Planeko programek.

3.2.3. Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia eta Ingurumen Esparru Programa

Gaur egun euskal ingurumen politikaren esparrua Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) eta Ingurumen Esparru Programaren (2002-2006) bidez jorratzen da, eta Europako esparruarekin guztiz bat dator. Estrategiak ingurumen helburu eta konpromisoak ezartzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen arloan epe luzean erdietsi behar direnak, hain zuzen. Epe motzera, EAEko ingurumen politikako konpromisoak 2002-2006 Ingurumen Esparru Programan islatzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen estrategiaren lehentasunak zein diren adierazten duten bost ingurumen xedeak gai hauei buruzkoak dira: aire, ur eta lurzorua garbi eta osasuntsuak bermatzea; baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua; natura eta biodibertsitatea babestea; lurralde oreka eta mugikortasuna; klima aldaketaren eragina mugatzea.

Xede horietatik bigarrenak zuzenean jotzen du hondakinen sorkuntza eta kudeaketara, eta ondorengo konpromiso hauek hartu behar direla aipatzen du Planaren xede diren hondakinei lotuta:

- Inolako tratamendurik jaso ez duten hondakinen isurketa guztiz ezabatzea 2006. urtea baino lehen. Salbuespena dira teknikoki tratamendu bideragarria ez duten hondakin inerteak, edo hondakinen kopurua murriztea laguntzen ez duten tratamendua duten hondakinak, edo gizakion osasunarentzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak diren hondakinak.
- 2004. urterako, obra publikoetan eta azpiegituretan material birziklatuen erabilera sustatzeko politika martxan jartzea.
- 2006. urterako, EAEko Hiri Hondakinen Plana egitea.
- Hiri hondakinen arriskugarritasuna jaitea, eta horretarako etxeko hondakin arriskutsuen gaikako bilketa gehiago egitea. Helburu zehatza hau da: 2006. urterako pila, berunezko bateria eta lanpara fluoreszenteen zatiak 900, 5.000 eta 130 tona/urte kopurura jaitea, hurrenez hurren.
- 2006. urterako helburu hauek lortzea ontziei eta ontzi hondakinei dagokienez: % 60-75 balorizatzea; % 55-70 birziklatzea (pisua), % 60 beira, % 55 paper-kartoia, % 50 metalak, % 20 plastikoak.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- 2012. urterako, pertsona bakoitzak sortzen duen hiri hondakin kopurua 2001. urteko mailara jaitea.
- 2012. urterako, zabortegira bideraturiko hiri hondakinak % 45 jaitea eta, 2020rako, sortutako guztiko kopuruaren % 30. Zehazki, zabortegira bideraturiko hiri hondakin biodegradagarriaren guztizko kopuruak (pisua) ez du gaindituko hiri hondakin biodegradagarriaren kopuru osoaren % 50, 2009. urterako, eta % 35, 2016. urterako.

Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planak EAEko estrategian proposaturiko helburuak bere egin eta betetzeko konpromisoa hartzen du.

3.2.4. Vitoria-Gasteizko Udal Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2000-2006

Vitoria-Gasteizko Udal Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean (2000-2006) aurreikusitako jarduerak harreman argia dute Plan honetan proposatutako helburuekin; horregatik, oso interesgarria da Vitoria-Gasteizko Udalerriaren aurreikuspenen eta Lurralde Historiko osoaren aurreikuspenen arteko sinergiak ezagutu eta aprobetxatzea.

Vitoria-Gasteizko Udal Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak xede hauek lortzearen alde egiten du:

- Udal hondakin gutxiago sortzea sustatu eta bultzatu.
- Materialak berrerabiltzea sustatu.
- Udal zerbitzuen eskaintzan materialak eta ekipamenduak aldatu.
- Kalitate oneko gaikako bilketa bermatu birziklatze aukerak optimizatzeari begira.
- Materia biodegradagarria bildu eta sailkatzeko beharrezkoa den tresneria eskuragarri izatea, kalitate oneko konposta lortzea ahalbidetuko duena.
- Isurketa minimizatu.

Hala, jarraian laburbiltzen diren helburu kuantifikatuak ezartzen dira:

- 2006. urtean HHetako ontzien gutxienez % 40 balorizatzea.
- HH, ILH eta nekazaritzako hondakinak zati organikoaren, eta horiekin batera EDAREko bigarren mailako lohien gutxienez % 90 anaerobikoki digeritzea. Gero, konpostatze aerobikoa egin eta nekazaritza arloan erabiltzea.
- Gardelegiko zabortegian ezabatzen diren hondakin biodegradagarrien kopurua % 55 murriztea, eta helburu hori erdiesteko, EH eta IMIHAetako materia organikoa % 90 murriztea, eta EDAREko lohi kopurua % 25.
- Anaerobikoki digeritutako lehen mailako lohia estabilizatu, deshidratatu eta beroarekin lehortzea.
- HHen barruan aurki daitezkeen pilen % 50, botatako sendagaien %10, aerosolen % 10 gaika biltzea, eta, bestalde, etxeetako landare-olio erabilien gaikako bilketa egitea.
- Herritarrek zaborretara botatzen duten oiha-hondakin kopuruaren gutxienez % 10 murriztea.
- Hondakin handien gutxienez % 50 berrerabili eta birziklatzea.
- Legedia aintzat hartuta, EKlen deskontaminazio-baldintzak bete daitezen sustatu eta laguntzea.
- Obra-hondakinak % 40 birziklatzea 2004-2006 epean.
- Indusketetako material naturalen % 40 berrerabiltzea 2000-2003 epean, eta % 80 2004-2006 epean.
- EEH guztien % 60 berrerabili eta birziklatzea 2006an.

Hauek dira Planean proposaturiko jarduerak-programak:

- Prebentzio programa.
- Hondakinak kudeaketa egokirako programa, aurreikusitako azpiegiturei begira.
- Arautegiaren garapenerako programa.
- Ikuskarpen eta kontrol programa.
- Informazioaren kudeaketarako programa.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Ikerketa eta garapen programa.
- Trebakuntza eta enplegu programa.
- Komunikazio programa.
- Planaren jarraipen eta kontrolerako programa.

Bi Planen aplikazio-eremua aintzat hartuta, guztiz beharrezkoa da bi Planek koherentzia eta erlazioa izatea kudeaketa era eta jarduera-programa errealista eta eraginkorrak proposatzeari begira. Era berean, sinergiak aprobetxatu eta integrazio printzipioa, eraginkortasun printzipioa eta erantzukizun eta koordinazio partekatuko printzipioa praktikan jarri behar dira.

Jarraian azaltzen den taulak atal honetan jorrotutako plan eta jarraibideetan ezarritako helburuak eta Planak ezarritako helburuak erkatzen ditu. Plan honen helburuak, hala ere, zabalago landuko dira lan honen 5. kapituluan.

HIRI HONDAKINEN PLAN, JARRAIBIDE ETA ESTRATEGIEN PROGRAMETAN EZARRITAKO HELBURUAK		2006-2016 PLANAREN PROGRAMETAN EZARRITAKO HELBURUAK	
Prebentzio Programa			
2000-2006 Plan Nazionala	Hondakin sorkuntza kopuruak murriztea	ALHHHKP	2012. urterako pertsona bakoitzak sortzen duen hiri hondakin kopurua 2001. urteko mailara jaitea
	Udal ekimenetako hondakin-multzoak minimizatzea		
2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategia	2012. urterako pertsona bakoitzak sortzen duen hiri hondakin kopurua 2001. urteko mailara jaitea	ALHHHKP	2012. urterako pertsona bakoitzak sortzen duen hiri hondakin kopurua 2001. urteko mailara jaitea
Gaikako Bilketa Hobetzeko Programa			
2000-2006 Plan Nazionala	2006ko abenduaren 31 baino lehen, 1.000 biztanle baino gehiagoko herrigune guztietan gaikako bilketa ezartzea	ALHHHKP	Paper-kartoen zatia <ul style="list-style-type: none"> • 2009. urtea: 2004. urteko kopuruaren % 60 • 2012. urtea: 2004. urteko kopuruaren % 75 Beiraren zatia <ul style="list-style-type: none"> • 2010. urtea: 2004. urteko kopuruaren % 80 Zur, metal eta plastikoen zatia <ul style="list-style-type: none"> 2009. urtea <ul style="list-style-type: none"> • 2004. urteko kopuruaren % 50 metaletan • 2004. urteko kopuruaren % 15 zuretan • 2004. urteko kopuruaren % 22,5 plastikoetan 2012. urtea <ul style="list-style-type: none"> • 2004. urteko kopuruaren % 75 metaletan • 2004. urteko kopuruaren % 30 zuretan • 2004. urteko kopuruaren % 40 plastikoetan
2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategia	Birziklatzea 2006 Ontziak <ul style="list-style-type: none"> • % 60-75 balorizatzea • % 55-70 birziklatzea Beira <ul style="list-style-type: none"> • % 60 birziklatzea Paper-kartoia <ul style="list-style-type: none"> • % 55 birziklatzea Metalak <ul style="list-style-type: none"> • % 50 birziklatzea Plastikoak <ul style="list-style-type: none"> • % 20 birziklatzea 		
Trebakuntza, Informazio eta Sentsibilizazio Programa			
2000-2006 Plan Nazionala	Sentsibilizazio kanpainak sustatzea	ALHHHKP	Sentsibilizazio kanpainak sustatzea Hondakin Behatokia sortzea Webgunea
Instituzioen Laguntzarako Programa			
2000-2006 Plan Nazionala	Langile espezializatuak prestatzeko programa	ALHHHKP	Hondakin kudeaketaren ardura duten erakunde publiko nahiz pribatuek beren artean era koordinatuan jarduteko protokoloa



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

HIRI HONDAKINEN PLAN, JARRAIBIDE ETA ESTRATEGIEN PROGRAMETAN EZARRITAKO HELBURUAK		2006-2016 PLANAREN PROGRAMETAN EZARRITAKO HELBURUAK	
Materia Organikoa Kudeatzeko Programa			
<p>2000-2006 Plan Nazionala</p> <p>HHen artean dagoen materia organikoa balorizatzea</p>		ALHHHKP	<p>Konposta</p> <p>2008. urterako hiri hondakinaren pisu osoaren % 11 konpost eran balorizatzea</p> <p>Etxeetan konposta ekoiztea bultzatzea, batez ere nekazaritza eremuetan</p> <ul style="list-style-type: none"> Konpostaren merkatuko erabilera sustatzea; eremu publikoan zein pribatuan konpostaren ezaugarriak eta erabilerak ezagutarazi <p>Zabortegetara botatzen den materia biodegradagarriaren kopurua murriztea</p> <ul style="list-style-type: none"> 2006. urtea: zabortegetara bideratzen den hiri hondakin biodegradagarriaren kopuruak ez du gaindituko 1995. urtean sortutako hiri hondakinaren kopuru osoaren % 75 2009. urtea: zabortegetara bideratzen den hiri hondakin biodegradagarriaren kopuruak ez du gaindituko 1995. urtean sortutako hiri hondakinaren kopuru osoaren % 15 <p>Zati organikoaren gaikako bilteta</p> <ul style="list-style-type: none"> Vitoria-Gasteizko Ekoizle Handientzako helburuak: <ul style="list-style-type: none"> 2006-2007. urtea: gaikako biltetaren programa ezartzea 2010. urtea: ekoiztutako materia organikoaren % 80 biltzea 2007-2008. urtea: Añana, Kanpezu eta Arabako Errioxako biztanleen % 100en materia organikoa eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak gaika biltzeko aukera izatea 2009-2010. urtea: Arabako Lautada, Zuia eta Aiarako biztanleen % 100en materia organikoa eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak gaika biltzeko aukera izatea Gaikako bilteta Vitoria-Gasteizko herrietan: 2010. urtea: biztanleen % 25en materia organikoaren gaikako bilteta ahalbidetzea 2013. urtea: biztanleen % 50en materia organikoaren gaikako bilteta ahalbidetzea 2015. urtea: biztanleen % 75en materia organikoaren gaikako bilteta ahalbidetzea 2016. urtea: biztanleen % 100en materia organikoaren gaikako bilteta ahalbidetzea
<p>2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategia</p> <p>Zabortegetara bideraturiko hiri hondakin biodegradagarriaren guztizko kopuruak (pisua) ez du gaindituko hiri hondakin biodegradagarriaren kopuru osoaren % 50, 2009. urterako, eta % 35, 2016. urterako</p>			
EEHak Kudeatzeko Programa			
<p>2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategia</p> <p>2004 Obra publikoetan eta azpiegituretan material birziklatuen erabilera sustatzeko politika martxan jarzea</p>		ALHHHKP	<p>Eraikuntza eta eraispeneko hondakinaren artean dauden materialen % 40 birziklatzea edo berrerabiltzea 2006. urterako.</p> <p>Eraikuntza eta eraispeneko hondakinaren artean dauden materialen % 70 birziklatzea edo berrerabiltzea 2016. urterako.</p> <p>Amiantoa duten eraispeneko hondakinei tratamendu egokia ematea.</p> <p>Narriatutako eremuak berreskuratzea.</p>

HIRI HONDAKINEN PLAN, JARRAIBIDE ETA ESTRATEGIEN PROGRAMETAN EZARRITAKO HELBURUAK		2006-2016 PLANAREN PROGRAMETAN EZARRITAKO HELBURUAK	
Kontrolik gabeko isurketa-fokuak eta ingurumena kontuan hartuta leku desegokitan kokaturiko hondakindegia Itxi eta Zigilatze Programara			
2001-2006 EEHen Plan Nazionala	EEHen bitartez lehengoratu daitezken narriatutako guneak identifikatzea (harrobiak, meategiak, etab.), eta lehengoratzeko onargarriak diren baldintza tekniko eta ekologikoak zehaztea	ALHHHKP	Itxiera eta beharrezko ingurumen-lehengoratzea. Lege-esparruan ezarritako betebeharrekin bat ez datozen edo lege-esparrura egokitu ezin daitezkeen guneetan kokatutako inerteen zaborteak itxia eta lehengoratzea.

4. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO HONDAKINEN KUDEAKETAREN EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Planaren atal honetan hondakin kudeaketaren egungo egoera islatzen da, hasi multzoek gaur egun duten sorkuntzatik (Plan honetan aplikagarriak diren hondakin multzoak) eta hondakin horien kudeaketara.

4.1 HONDAKINEN SORKUNTZA ETA KARAKTERIZAZIOA


Grafikoetan ematen diren hondakin zati bakoitzari dagozkion datuak Eusko Jaurlaritzaren "EAEko hiri hondakinak kudeatzeko esparru-planifikaziorako jarraibideak" izeneko dokumentutik hartu dira. Dokumentu horretan 2003. urterainoko sorkuntza-datuak soilik biltzen dira, eta horregatik, Plana idazten ari dela, oraindik ez dago 2004ko sorkuntzari buruzko datu ofizialik.

- Hiri Hondakinak (etxeko bilketa eta gaikako bilketa)


Segidan, sarrera moduan, 1997-2003 epealdiko Arabako Lurralde Historikoko HHen sorkuntza grafikoa erakutsiko dugu.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana




Iturria: EAEko HHen Inbentario Historikoa



*Arabako LH-ko kuadrilletean sortutako HHak (T/URTE) 1997-2003 epean
Iturria: EAEko HHen Inbentario Historikoa*

Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana




Vitoria-Gasteizen sortutako HHak (T/URTE) 1997-2003 epean
Iturria: EAEko HHen Inbentario Historikoa

- Industria, Merkataritza eta Instituzioetako Hondakin Asimilagarriak (IMIHA)

IMIHA hondakinak industriako, merkataritzako, instituzioetako eta zerbitzuetako hondakinak dira, hirikoekin batera asimila daitezkeenak. Era berean, mota horren barruan sartzen dira arriskutsu izendapena ez dutenak eta izaera edo konposizioagatik hiri hondakinekin asimila daitezkeenak.

Ondorengo taulan Araban sortutako IMIHA hondakinen bilakaera ikus daiteke, 1980-2003 bitarteko EAEko HHen Inbentario Historikotik ateratako datuen arabera.



Iturria: EAEko HHen Inbentario Historikoa



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Inausketa eta lorezaintzako hondakinak (LH)


Inausketa eta lorezaintzako hondakinen sorkuntzan, Vitoria-Gasteizko udalerriri dagozkion datuak soilik jaso dira.

Kuadriletako datuak, hondakin mota honi dagozkienak, Arabako Lurralde Historikoan egindako karakterizazio kanpainan jasotako dokumentuetatik atera dira.

- Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak (EEH)

Zati honetako datuak Gardelegiko zabortegiko, Laudioko Arantzar hondakindegiko eta Langraiz Okako El Torco harrobi zaharreko lurren deposituko sarrerei dagozkie; deposituak Arabako biztanleen % 82ri ematen die zerbitzua.

Segidan azaltzen den taula honek hondakin multzo honen sorkuntza erakusten digu 1999-2004 bitartean. El Torcoko datuak, baina, 2001. urtetik aurrerakoak dira, martxan hasi zeneko urtea, alegia.



Iturria: berariaz landua. AFaren datuak

ERAISPENEKO HONDAKINEN KONPOSIZIOA
MATERIALA
% PISUA


Hormigoia	44
Harlangaitz-hormak	27
Garau-oinarria	20
Obra-hondakin nahasiak	3,4
Teilak	0,6
<i>Harrizko materialak, guztira</i>	95
Zura	2,3
Metalak	1,4
Material bituminosoak	0,2
Material sintetikoak	0,3
Gainerakoak	0,8
GUZTIRA	100

Iturria: berariaz landua

- Hondakin handiak (Hh)

Ondorengo grafiko honetan, EAEko Hondakin Inbentariotik eta Laudiotik jasotako datuen laguntzarekin, hondakin handien sorkuntza ratioa ikus daiteke biztanleko eta urteko. Datu horiek biztanleen % 83 hartzen dute barne.

H. HANDI KILO BIZ./URTE RATIOA



Iturria: EAEko HHen inbentarioko datuak

4.1.1. Berezi Gabeko (BG) etxeko hondakinen konposizioari buruzko azterketa

Plan honen ezaugarri nagusienetako bat Arabako Lurralde Historikoko kuadrilla bakoitzeko berezi gabeko etxeko bilketatik etorritako hondakinen konposizioari buruzko azterketa egitea izan da. Vitoria-Gasteiz, hala ere, ez da azterketan sartu, 1996an karakterizazio bat egin baitzuen.

Hondakinen konposizioaren inguruko azterketa hau egitearen arrazoi nagusia hondakinen sorkuntzaren eta beren tratamenduaren egungo egoerari buruzko diagnostikoa egiteko oinarriak ezartzea da. Horren bidez, gaikako bilketaren ezarpen-maila zein den jakin ahalko da, bai eta eragindako arazoak kontuan hartuz berariazko tratamendua eman behar zaien multzo bereziak zein diren antzeman ere: bilketa, garraioa, etorkizuneko balorizazioa, etab.

Hondakinen sorkuntzako datu errealekin lan egiteko, Planaren xede diren kuadrilletako bilketatik datozen etxeko hondakinen konposizioa jakiteko azterketa kanpaina egin da. Bi hilabetetik behin eta aste betez kuadrilla bakoitzean laginak hartu dira, urtaro bakoitzaren arabera hondakinen konposizio ezberdinak ikusi ahal izateko.

IDOM Ingeniería y Consultoría S.A.-k egin ditu lan horiek, 2004ko martxotik abendura bitartean.

Segidan, hondakinak karakterizatzeko egin diren lanak azaltzen dira irudi hauetan:



Hondakinak biltzen dituen kamioiaren deskarga



1.000 kg-ko lagin baten aukeraketa



250 kg-ko azken lagina, deskonposatzeko prest



Azken sailkapena

4.1.2 Laginen analisisa

Karakterizazioarekin batera, etxeko hondakinen konposizioaren azterketa zehatza egin da karakterizazio bakoitzaren barruan bildutako bi laginetan: zati organikoan eta nahasketan.

Hondakinen konposizioaren analisisa egin da, aurkitutako multzoen tipologiaren arabera, bai eta analisi fisiko-kimikoa ere.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Zati organikoaren inguruko: dentsitatea, hezetasuna, porositatea, pH, guztizko nitrogenoa eta karbono/nitrogeno erlazioa.
- Nahasketaren inguruko: hezetasuna, bero-ahalmena.

Honako hauek dira analisisen emaitzak:

ZATI ORGANIKOA	UNITATEAK	BATEZBESTEKOA, GUZTIRA
Dentsitatea	g/ml	1,30
Hezetasuna	%	72,96
Porositatea	%	58,64
pH	--	5,04
Nitrogenoa, guztira	%	3,85
Karbono/nitrogeno erlazioa	--	18,97
Erraz hartitzen den materiaren %	%	98,46
NAHASKETA-LAGINA	UNITATEAK	BATEZBESTEKOA, GUZTIRA
Hezetasuna	%	78,77
Barne berokuntza ahalmena	kcal/kg	1.471,00
Goi berokuntza ahalmena	kcal/kg	1.907,14

- Karakterizazioaren emaitza, pisuan adierazia

Hauek dira lortutako emaitzak, laginarekiko pisuaren ehunekotan adierazia:

OSAGIAK	% PISUA
Zati organikoa	22,50
Loreza. eta inausk. hondakinak	25,9
Ontzietako plastikoak	4,64
Gainerako plastikoak	1,65
Altzairua	3,68
Aluminioa	0,81
Zura	3,22
Zelulosak	6,68
Oihalak	5,23
Beira (ontziak)	4,88
Obra txikietako hondakinak	1,12
Paper eta kartoi inprimatuak	2,99
Paper/kartoi ontziak	3,26
Paper/kartoi ez ontziak	3,39
Bestelakoak (TEEH, etxeko hornidura)	10,04
Guztira	100



Iturria: IDOM S.A.-k egindako konposizio-azterketa



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

Gaikako bilketa ezarri ondoren Arabako Lurralde Historikoko HHen sorkuntzaren barruan hainbat zatik izandako aurrerapena ikusi ahal izateko taula bat aurkezten da jarraian, non aurreko 1998-2001 Hondakinen Planerako egindako karakterizazioaren emaitzak eta dokumentu honen xedea den Planerako orain egin den karakterizazioarenak azaltzen diren, horrela, konparazio bat egin ahal izateko.

OSAGIAK	KARAKTERIZAZIOA 1996 (%)	KARAKTERIZAZIOA 2004 (%)
Zati organikoa	46,98	22,50
Inausk. eta lorezai. hondakinak	*	25,9
Zelulosa	*	6,68
Beira	5,83	4,88
Paper inprimatua	*	2,99
Paper/kartoi ontziak	7,00	3,26
Paper/kartoi ez ontziak	14,21	3,39
Burdin metalak	3,57	3,68
Aluminio metalak	0,32	0,81
Ontzietako plastikoak:	11,09	4,64
PE, PET eta PVC	2,67	2,99
Ontzietako gainerako plastikoak	8,48	1,65
Plastikoa		
Tetrabrikak	0,80	-
Zura	1,53	3,22
Oihalak	3,03	5,23
Pilak	0,08	-
Gomak, larruak	1,15	-
Lurrak, errautsak, lozak, obra txikiak	3,11	1,12
TEEH, etxeko hornidurak	*	10,04
GUZTIRA	100,00	100,00

- Tetrabrikak, pilak, gomak eta larruak: zati horiek ez dira azaltzen 2004an egindako karakterizazioan.

* Aurreko karakterizazioan kontuan hartu ez diren zatiak

Jarraian, kuadrillei egindako karakterizazioetan, 250 kg-ko lagin batean bildutako zati organikoaren eta inausketa eta lorezaintzako zatiaren batezbesteko kopuruak erakusten dituzte bi taula hauek:

KUADRILLA	ZATI ORGANIKOA	
	BATEZBESTEKO KARAKTERIZATUA (KG)	GUZTIZKOAREN %
Zuia	49,8	19,9
Agurain	59,5	23,8
Arrazua	68,5	27,4
Añana	73,3	29,3
Aiara	65,8	26,3
Arabako Errioxa	69,6	27,9
Kanpezu	54,2	21,7

KUADRILLA	LOREZAINZA ETA INAUSKETA BATEZBESTEKO KARAKTERIZATUA (KG)	GUZTIZKOAREN %
Zuia	74,2	29,7
Agurain	79,3	31,7
Arrazua	78,2	31,3
Añana	82,7	33,1
Aiara	50,2	20,1
Arabako Errioxa	48,7	19,5
Kanpezu	62,5	25,0

4.2. ONDORIOAK

Arabako Lurralde Historikoan sortutako hondakin tipologia ezberdinak aztertu ondoren, eta aurreko karakterizazioarekin konparazio bat egiten badugu, hau ondoriozta dezakegu:

- Zati organikoa karakterizatutako hondakin guztien erdia da oraindik ere, eta hala, zati horrentzat berariazko gaikako bilketa ezartzea justifikatzen du datu horrek.
- Zati organiko osoaren erdia, era berean, inausketa eta lorezaintzako hondakinek osatzen dute; hala, azpimultzo horrentzat berariazko programa bat martxan jartzea aukera zuzena izan daiteke.
- Zuren kopurua ere nabarmen igo da eta, ondorioz, mota horretako hondakinak birziklatzeko berariazko helburuak ezarri dira.
- Paper-kartoizko ontzien kopurua eta paper-kartoen zatia asko jaitsi da 1996ko karakterizazioarekin erkatzen badugu; jaitsiera horren kausa, zalantzarik gabe, paperen edukiontzien gaikako bilketarekiko sentsibilizazioa da.
- Ontzi plastikoen zatiak ere beherakada nabaritu du, edukiontzi horiaren ezarpena dela-eta, eta tetrabriken zatia desagertu egin da guztiz 2001eko datuetan ikus daitekeen moduan.
- Aipatu beharra dago zelulosen zati berria agertu dela, ehuneko nahiko handia duena, ziur asko, erabilera gerontologikoarekin duen lotura dela-eta.
- Pilen zatiaren desagerpena hondakin horren gaikako bilketa era egokian ezarri delako gertatu da eta, horrekin batera, batera mota horren erabilera asko jaitsi delako.

4.3. HONDAKINEN KUDEAKETAREN EGUNGO EGOERA

4.3.1. HHen Kudeaketa Planaren (1998-2001) ezarpen-maila

Hondakinen egungo egoera aztertzeko, lehenik eta behin, aurreko Plana indarrean zegoen denbora tartean egindako jarduerak aztertu behar dira. Hori eginez, hondakinen kudeaketak izan duen bilakera ikusi ahalko dugu, eta ondoren dokumentu honen xede den Planaren barruan egin beharreko jarduerak pentsatu ahalko dira.

4.3.1.1 Aurreikusitako eta egin ziren inbertsioak

1998-2001 Planean jarduera hauek proposatu ziren:



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- **Zati birziklagarriak gaika biltzeko sistema ezartzea**
Arabako Lurralde Historiko osoan edukiontzi horiak jarri ziren ontziak jasotzeko, eta, beira eta paper-kartoia jasotzeko ere, bakoitzari dagozkion edukiontziak jarri ziren.
- **Azpiegiturak**
 1. *Ontzi arinak bereizi eta sailkatzeko instalazioa Vitoria-Gasteizen.*
Instalazioa Plana indarrean zegoen denbora tartean eraiki zen eta gaur egun funtzionatzen jarraitzen du.
Ontzien instalazioa urtean 10.000 tona hartzeko pentsatuta dago. Gaur egun % 100eko errendimendua du, eta urtean 3.000 tona prozesatzen dira bertan.
 2. *EEHak bereizi eta sailkatzeko instalazioa Vitoria-Gasteizen.*
Planaren esparruaren barruan azpiegitura honek ez zuen aurrera egin. Gaur egun, instalazioaren eraikuntza adjudikatuta dago, eta laster hasiko dira eraikitze-lanak.
 3. *Garbiguneak.*
Arabian 11 garbigune eraikiko zirela ezartzen zen Planean. Hauek ziren kokalekuak: Murguía, Rivabellosa, Legutiano, Vitoria-Gasteiz (2), Agurain, Alegria-Dulantzi, Kanpezu, Oion, Labastida eta Langraiz Oka.
4 eraiki dira: 2 Vitoria-Gasteizen, eta 1 Agurainen eta Alegria-Dulantzin. Gainera, Kudeaketa Plana baino lehenago eraikitako beste bi garbigune funtzionatzen ari dira, Laudiokoa eta Amurriokoa, hain zuzen ere.
Langraiz Okako garbigunea orain ari dira eraikitzen, eta Oiongoaren proiektua oso aurreratuta dago.
Zuiako Udalak garbigune bat eraikitzeko eskabidea egin du.
 4. *Eraikuntza eta eraispeneko hondakinentzako hondakindegia*
Planean helburu hauek ezartzen ziren: EEHak biltzeko 5 udal hondakindegia sortzea, lurrak eta harkaitzak botatzeko 8 betetze-eremu gaitzea eta etxeen berritze lan txikitako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko EEHen botatze eta bilketarako 225 unitate instalatzea.

KUADRILLA	EEHak BILTZEKO m ³ -ko EDUKIONTZIAK	EEHentzako HONDAKINDEGIAK	BETETZE-EREMUAK
Agurain	53	-	-
Kanpezu	34	-	1 Bernedo, 1 Maeztu
Arabako Errioxa	18	1 Laguardia, 1 Oion, 1 Lapuebla Labarca	1 Samaniego
Añana	57	1 Lantarón	1 Iruña "El Torco", 1 Kuartango, 1 Rivabellosa, 1 Berantevilla, Villanueva de Valdegoviakoa hobetzea
Zuia	24	1 Urkabustaiz eta Zuia	-
Aiara eta Aramaio	31+8	-	-
Guztiak	225 ale	5 ale	8 ale

Planaren indarreko urteean hauek izan ziren aurrera atera ziren jarduerak:

- **Laudio:** Arantzargo inerteen zabortegiaren proiektua egin eta zabortegia eraikitzea. 1998. urtetik funtzionatzen ari da. Bestalde, hondakindegia arautegi berrira egokitzeko obren proiektua egin zen.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- **Amurrio:** EEHak bota eta biltzeko 6 unitate instalatzea udalerriko hainbat tokitan, eta indusketetako lur eta harkaitzentzat betetze-eremua eraikitze proiektua egitea.
 - **Iruña Oka:** "El Torco" harrobi zaharren kokapena egokitzea eta betetze-eremu bat sortzea.
 - **Zigoitia:** EEHentzako bilketa unitateak eraikitzea herri bakoitzean, eta Letonako harrobi zaharra lurren isurketarako gaitzea.
 - **Agurain:** inerteen hondakindegia birmoldatu eta handitzeko obrak egitea.
 - **Oion:** inerteen zabortegi bat eraikitze obrei buruzko proiektu bat egitea.
 - **Barrundia:** EEHentzako bilketa unitate bat instalatzea udaleko herrigune bakoitzean.
 - **Arabako Errioxa:** EEHentzako 4 bilketa unitate instalatzea.
 - **Villanueva de Valdegovía:** egokitzapen- eta hobetze-lanak egitea.
 - **Arabako Mendialdea:** 6 bilketa unitate instalatzea.
- **Zehaztutako Antolakuntza Eskemak**

Hondakinen arloan eskumena duten udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko kudeaketaren antolakuntza kooperatzailearen alde egiten zuen Planak. Gainera, lankidetzat publiko-privatuen oinarritutako hondakinen kudeaketaren aldeko apustua egiten zuen, kudeaketa mistoaren bidez, kudeaketa pribatu baimenduaren bidez nahiz emakida erregimenaren bidez. Udalerriko kudeaketaren eta lurraldeko kudeaketaren arteko baturaren emaitza zen hondakinen kudeaketa Plan Integralean. Hondakinen kudeaketari buruz lurralde Plangintzaren barruan ezarritako eginbehar nagusiak kudeaketa, sustapen eta ikuskatze jardueren ingurukoak ziren, eta jarduera horietako bakoitzean inbertsioak aurreikusten ziren.

4.3.2 Hondakinen egungo kudeaketa

4.3.2.1 Bilketa

Gaur egun, tokiko kudeaketa egiten da, kuadrilla bakoitza hiri hondakinak kudeatzen dituen erakundea da, eta kuadrilla osatzen duten udalerriko bakoitzaren hondakinak era guztiz zentralizatuan kudeatzen dira.

Salbuespena dira Vitoria-Gasteizko eta Arrazua-Ubarrundiako udalak eta Aiarako Kuadrilla.

Aiarako Kuadrillan, transferentzia estazioaren kudeaketa izan ezik, zeina mankomunatu dagoen, udalak berak dira etxeetako bilketa zerbitzua eskaintzen dutenak. 2004. urtean hondakinen bilketaren kudeaketa mankomunatuaz kuadrilla bera ardura zedin plan bat egin zen.

Ondoren azaltzen da gaikako bilketa nola egiten den:


Ontzien eta bilgarrien edukiontzia (horia).

Kuadrillen ardura da edukiontzi horien instalazioa kudeatzea eta, kontratatutako enpresen bidez, edukiontzia jasotzea. Edukiontzi horian bildutako hondakinak Jundizko instalaziora eramaten dira. Instalazio hori Arabako Foru Aldundiak kudeatzen du zerbitzuen emakida sistema baten bidez.

Atal honen barruan aipatzekoa da Aiarako Kuadrilla salbuespena dela. Izan ere, Aiarako ontziak Bizkaiko Foru Aldundiko enpresa publikoak (Garbiker) Amorebietan duen instalazioan kudeatzen dira.


 Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

Ontziak biltzeko edukiontzien kopurua: 3.795; horien artean hainbat edukierako edukiontziak daude



	2000	2001	2002	2003	2004
TN/URTEAN	1363	1939	2339	2820	3446


Iturria: EAEko hiri hondakinen Inbentario Historikoa

Paperaren eta kartoiaren edukiontzia (urdina).

Arabako Foru Aldundiak eskaintzen du zerbitzu hau Lurralde Historiko osorako eta Trebiñoko Konderrirako, baina Vitoria-Gasteizko udalerria ez da sartzen.

Bilketa eta garraioa enpresa pribatu batek egiten du zerbitzuaren emakidaren bidez. Arabako Foru Aldundiaren eta udalen arteko lankidetzaren hitzarmen baten bidez, gaur egun kudeaketa-lana Foru Aldundiari dagokio. Bestalde, paper/kartoi hondakinen balorizazioa sektoreko enpresek egiten dute. Paper/kartoi hondakinak Arabako Foru Aldundiak kudeatzen ditu.

Papera eta kartoia biltzeko edukiontzien kopurua: 1.102.




	2000	2001	2002	2003	2004
TN/URTEAN	8.674	8.933	9.122	13.246	14.242

Iturria: EAEko hiri hondakinen Inbentario Historikoa

Beiraren edukiontzia (berdea).

Beira ECOVIDRIO-k kudeatzen du. ESPARRU hitzarmen bat dago EAEren eta ECOVIDRIOren artean, non Arabako LH-ko udal guztiak atxikita dauden. Hitzarmen horrek barne hartzen ditu udalerrietan edukiontzia jartzea, biltzea eta Laudioko tratamendu instalazioraino garraiatzea.

Beira biltzeko edukiontzien kopurua: 1002.



	2000	2001	2002	2003	2004
TN/URTEAN	4723	5073	5567	5950	6781

Iturria: EAEko hiri hondakinen Inbentario Historikoa


Transferentzia estazioa

Transferentzia estazio bat dago Laudio, eta hortik eramaten dira hondakinak Gardelegiko zabortegira. Estazioak urteko 18.000 tona jasotzeko ahalmena du.

Arabako udalerrri hauei ematen die zerbitzua: Laudio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Okondo. Transferentzia estazioak 34.186 biztanleren beharrei erantzuten die. Gainera, Bizkaiko udalerrri batzuei ere ematen die zerbitzua: Arakalda, Arrankudiaga, Urduña eta Orozko.

Gutxi gorabehera 11.000 tona biltzen dira urteko transferentzia estazioan. Jarraian, taula bat ageri da 1995 eta 2004 artean jasotako hondakinen datuekin. Transferentzia estazioa Aiarako Kuadrillak kudeatzen du.

Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana



Iturria: berariaz landua

Garbiguneak

Arabako Lurralde Historikoaren barruan puntu garbi edo "garbigune" hauek daude gaur egun, kokatuta dauden herriko udalek kudeatzen dituztenak.

KOKAPENA	Laudi o	Amurrio	Iruña Oka	Dulantzi	Agurain	Vitoria-Gasteiz
UNITATEAK	1	1	1*	1	1	2


**2005ean hasi zen funtzionatzen. Iturria: berariaz landua*

4.3.2.2 Tratamendu/balorizazio/ezabatze azpiegiturak

Ontzien instalazioa

Instalazioa 10.000 tona/urte biltzeko pentsatuta dago. Kuadrilletan eta Vitoria-Gasteizen bildutako datuek erakusten dutenez, urteko 3.000 tona jasotzen dira. Hori hobe ikus daiteke ondorengo grafikoan, zeinak instalazioan jasotako tonen datu historikoak jasotzen dituen.


Aiarako Kuadrillako daturik ez da ematen, Amorebietan (Bizkaia) GARBIKER-ek duen instalaziora eramaten baitira Aiarako Kuadrillako ontziak.



Zabortege kontrolatua

Arabako Lurralde Historikoko zabortege kontrolatua Gardelegikoa da, Vitoria-Gasteizko kanpoaldean kokatuta dagoena. Gardelegik titulartasun publikoa du (Vitoria-Gasteizko Udala), eta, lizitazio publiko bidezko emakida baten bitartez, era pribatuan kudeatzen da. Gardelegin botatzen dira Araban sortutako hondakin guztiak. Zabortege honek, bestalde, Arabarekin muga egiten duten beste probintziako udalerrri batzuetako hondakinak biltzen ditu: Bizkaiko probintziako Otxandio (Zuiako Kuadrillak biltzen du), Arakaldo, Orozko, Urduña eta Arrankudiaga (Aiarako Kuadrillarekin batera biltzen dira); Nafarroako La Población eta Meano (Arabako Errioxako Kuadrillarekin batera jasotzen dira); eta Burgosko Trebiño (zabortegearekin dagoen hitzarmen baten bidez). Hona hemen 2003 eta 2004 urteetan Gardelegin jasotako hondakinaren grafiko bat (tonetan).

Iturria: Gardelegiko zabortegea




2003an eta 2004an zabortegean bildutako hondakinak hauek dira, guztira: 883.528 eta 640.224 tona, hurrenez hurren. Datu horietatik ondoriozta daitekeenez, hondakinaren kopurua % 27,54 jaitsi zen.

Zabortegeira eramandako hiri hondakinaren kopuruak % 3ko jaitsiera izan zuen. Industria hondakinaren kopurua, bestalde, % 20 igo zen, eta eraikuntzako hondakinak eta obra hondakinak % 37 jaitsi ziren.

El Torco harrobi zaharreko betetze-eremuak.

Betetze-eremua indusketako lurren eta harkaitzen isurketa sekuentzialera bideratuta dago, harrobi zaharreko ingurumena lehengoratzeko pixkanakako betetze programa baten barruan.

Betetze-eremuaren kudeaketa Arabako Foru Aldundiari dagokio, Vitoria-Gasteizko eta Iruña Okako Udalekin eta Langraiz Okako Administrazio Batzarrekin sinatutako hitzarmen bati jarraiki.



4.3.3 Eraikitzen ari diren azpiegiturak

Vitoria-Gasteizko Udala 300.000 t/urte edukiera izango duen EEHak sailkatu eta tratatzeko instalazio bat hasi da eraikitzen. Azpiegitura hori Gardelegiko zabortegian kokatuko da.

2004ko udazkenean Arabako HHak biometanizatze eta konpostatzeko instalazio bat eraikitzen hasi zen. Vitoria-Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak sustatu dute instalazioa, *Europako funtsekin* batera. Etxeetako bilketatik, instituzio, merkataritza eta zerbitzu asimilagarrietatik eta inausketa eta lorezaintza lanetatik datozen 120.750 tona hiri hondakin tratatzeko ahalmena du instalazioak urtean. Kuadrilla guztietako eta Vitoria-Gasteizko udalerriko hiri hondakinak kudeatuko ditu instalazioak. Instalazioan egiten den sailkapenetik eta triajetik datozen material birziklagarriak eta balorizagarriak birziklatze eta balorizatzeko zentroetan kudeatuko dira, multzo bakoitza dagokion eran, eta baztertutako hondakin ez balorizagarriak Gardelegiko zabortegira eramango dira. Instalazio honen helburuetako bat da urtero 12.600 tona konpost ekoiztea, kalitate oneko konpost hori gero nekazaritzan erabili ahal izateko. Arlo hori zabalago jorratzen da Plan honen 5.4.5 atalean, proposatutako planen barruan.

Instalazioa 2007ko urtarrilan martxan jarriko dela aurreikusten da.



Instalazioaren eraikitze-lanen ikuspegia



Triaje eta sailkapen zonaren ikuspegia



Eraikitzen ari diren lubakien ikuspegia

5 JARDUTEKO ESTRATEGIA

5.1 PRINTZIPIO ESTRATEGIKO ETA OBJEKTIBOAK

5.1.1 Printzipio estrategikoak

Oinarri gisa lege esparrua hartuta eta hondakinaren kudeaketa optimoari dagokion azken urteetako Europako joerak ikusirik, Europako Batasunak sustatutako ingurumen lehentasunen hierarkian oinarritutako arautegiak garatuz joan dira. Printzipio hauetan oinarritzen dira, batez ere, arautegi horiek:

- **Betearazpen-akzioaren printzipioa**
Plan hau martxan jartzeko baliabide ugari behar direnez, tokiko erakundeak behartuta daude helburuak eta epeak errespetatzera, bai eta aurreikusitako azpiegiturak erabiltzera ere. Hori dela eta, etxetako hondakinak kudeatzeko **nahitaezko esparru minimoa** ezartzen du Planak.
- **Tratamenduak hierarkikoki sailkatzeko printzipioa**
Hondakinak kudeatzeko politikari dagokionez, funtsezko printzipio batean oinarritzen da Erkidegoko estrategia, zeinak hondakinek jasango dituzten tratamenduak hierarkiko sailkatzen dituen. Hala, lehenik eta behin, prebentzioari ematen zaio lehentasuna, gero hondakinak berreskuratzeari (horren barruan sartzen dira berrerabilpena eta birziklatzea, bai eta energia berreskuratzea ere; materialak berreskuratzeari ematen zaio lehentasuna) eta, azkenik, hondakinak ezabatzeari (energia berreskuratze gabe erraustea, eta botatzea edo isurketa biltzen dituen).
- **Hurbiltasunaren eta buru askia izatearen printzipioa**
Ezabatzea bideratutako hondakinak sortzen diren tokitik ahalik eta hurbilen tratatu beharko dira, betiere hondakinaren tratamenduko eragiketek eraginkortasunik galtzen ez badute.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Prebentzio kuantitatiboari (sortutako kopuruak murrizteari lotuta) nahiz prebentzio kualitatiboari (arriskugarritasuna murrizteari lotuta) eragiten dio printzipio honek.
- Poluzioa prebenitzeko printzipioa
Hondakinen prebentzioa erabat lotuta dago baliabideen erabilpeneko eraginkortasuna, kontsumo jarraibideen bilakaera eta produktuen ekoizpen, erabilera eta ezabatzearen zikloan zehar sortutako hondakinak murriztea hobetzearekin.
Ezarpenari dagokionez, printzipio hau alderdi zailenatariko bat da. Izan ere, hondakinak sortzea eta enpresen garapen ekonomikoa bereiztea eskatzen du, eta helburu nagusia enpresak era iraunkorrean garatzea da.
 - Ekoizlearen erantzukizunaren printzipioa
Europako estrategiaren arabera, ekoizleen erantzukizuna da beren produktuak kudeatzea, produktu horiek hondakinak direnean ere.
 - Poluitzaile-ordaintzaile printzipioa
Europako estrategiak "poluitzen duenak ordaindu egin beharko du" printzipioa sustatzen du. Hori egi bihurtzeko, merkatuan oinarritutako tresnak eta zergak, kanonak eta laguntzak baliatzen ditu hondakinen kudeaketarengatik ingurumenean eragindako kalteei, onak zein txarrak, erantzun ahal izateko.
 - Subsidiarotasun printzipioa
Subsidiarotasun printzipioaren arabera, administrazio publikoak esku hartzeko ahalmena izango du hondakinen kudeaketan parte hartzen duten bestelako eragileek jardueraren helburuak guztiz bete ezin badituzte (aurreikusitako jardueraren handitasuna edo ezaugarriak direla-eta).
 - Erantzukizun partekatuaren printzipioa
Planak subsidiarotasun printzipioa eta erantzukizun partekatuaren printzipioaren adierarik zabalena bateratuko ditu. Hondakinen kudeaketaren arloan, erantzukizuna partekatzeko asmoa duten gizarteko sektore guztien parte-hartze hobezinaren bitartez, gizartearen jokabide-jarraibideak moldatzea eragingo du printzipio honek. Horren barruan sartzen dira administrazio publikoak, enpresa publiko eta pribatuak eta biztanleria, herritar nahiz kontsumitzaile gisa.
 - Lurzoruaren babesa eta leheneratzea
Lurzorua ingurumen eragina pairatzen duen baliabide mugatua da. Lurzoruaren erabilera iraunkorra sustatuko da, eta arreta berezia jarriko zaio lurzorua narriadura eta poluzioa prebenitzeari, bai eta lurzoru poluituak dituzten zonak garbitzeari ere.
 - Informazioaren gardentasuna eta biztanleen parte-hartzea
Programak arrakastatsuak izan daitezen, garrantzitsua da herritarrek ingurumen informazioarako sarbidea aurreikustea eta sustatzea eta, horrez gain, ingurumen arloan eragina duten politikak egiten interesa duten eragileek parte hartzea. Agintari politikoei, eragileei eta talde interesatuei eta, oro har, herritar guztiei ematen zaien informazioak egokia, gardena, eguneratua eta ulergarria izan behar du.

5.1.2 Planaren helburuak

Printzipio estrategikoei osatzen duten oinarriaren gainean Arabako Lurralde Historikoko errealitatera egokitutako berariazko helburu batzuk proposatu dira, ingurumena errespetatzearen oinarriko jarraibideari jarraiki eta, bestelako aukerak proposatzen badira, ingurumen presio gutxiago eragingo dituzten aukerak egiteari jarraiki (ikusi 5.3 kapitulua).



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

Hondakinen sorkuntza eta kudeaketaren egungo egoera aintzat hartu behar dira Arabako helburuak ezartzerakoan. Gainera, Europako zuzentarauetan, Espainiako, autonomia erkidegoko eta tokiko legedietan eta Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) zehaztutako helburuekin bat etorri behar dute Arabako helburuek.

Ikuspuntu kualitatibotik zein kuantitatibotik ezartzen dira Planeko helburuak. Helburuak kuantifikatzeak onura garbi bat dakar: adierazle konparatibo batzuk ezartzen dira Plana indarrean dagoen eperako, eta adierazle horiek aztertuz, helburuen bilakaera eta betetzen ari ote diren ikus daiteke.

Ondorioz, eta egungo egoera kontuan hartuta, ondorengo helburu hauek ezartzen dira:

- Prebentzio Programa
 - 2012. urterako pertsona bakoitzak sortzen duen hondakin kopurua 2001. urteko mailara jaitea.
- Gaikako Bilketa Programa
 - Multzo bakoitzarentzat ondoren ezartzen den murrizketa (ehunekotan) eta Planak irauten duen epean gaika bildutako eta etxeetako hondakinen artean dauden hondakin multzo berezietan murrizketak.
- Paper-kartoen zatia:
 - 2009. urtea 2004. urteko kopuruaren % 60.
 - 2012. urtea 2004. urteko kopuruaren % 75.
- Beiraren zatia:
 - 2010. urtea 2004. urteko kopuruaren % 80.
- Zur, metal eta plastikoen zatia:
 - 2009. urtea
 - Metalak: 2004. urteko kopuruaren % 50.
 - Zurak: 2004. urteko kopuruaren % 15.
 - Plastikoak: 2004. urteko kopuruaren % 22,5.
 - 2012. urtea
 - Metalak: 2004. urteko kopuruaren % 75.
 - Zurak: 2004. urteko kopuruaren % 30.
 - Plastikoak: 2004. urteko kopuruaren % 40.
 - Lurraldeen arteko orekan oinarrituta, gaikako bilketarako azpiegiturak harmoniaz eta era antolatuan garatzea.
- Trebakuntza, Informazio eta Sentsibilizazio Programa
 - Komunikazioa bultzatzea, gaikako bilketa optimizatzeari begira, arlo honetako eragileak trebatu, informatu eta kontzientziatzeko tresna indartsua den heinean.
 - Informazioa jaso eta ematean instituzioek nagusitasuna izatea oinarritzko gaietan informazio okerra, hutsuneak eta gabeziak saihesteko.
 - Interneten bidez informazioa eskuragarriagoa bihurtzea.
 - Planaren helburuak bete daitezen lortzeari begira, parte-hartzaile aktibo gisa zenbait eragileei duten garrantziaz jabearaztea.
- Instituzioen Laguntzarako Programa
 - Parte hartzen duten administrazio publikoen artean jarduera eta lankidetzaren prozedurak optimizatzea, eta horretarako sinergiak aprobetxatu eta jarduera irizpide homogeneoak ezarri.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- **Materia Organikoa Kudeatzeko Programa**
 - **Konposta**
 - 2008. urterako hiri hondakinaren pisu osoaren % 11 konpost eran balorizatzea.
 - Etxeetan konposta ekoiztea bultzatzea, batez ere nekazaritza eremuetan.
 - Konpostaren merkatuko erabilera sustatzea; eremu publikoan zein pribatuan konpostaren ezaugarriak eta erabilerak ezagutarazi.
 - **Zabortegira botatzen den materia biodegradagarri kopurua murriztea**
 - 2006. urtea: zabortegira bideratzen den hiri hondakin biodegradagarri kopuruak ez du gaitutako 1995. urtean sortutako hiri hondakin kopuru osoaren % 75.
 - 2009. urtea: zabortegira bideratzen den hiri hondakin biodegradagarri kopuruak ez du gaitutako 1995. urtean sortutako hiri hondakin kopuru osoaren % 15.
 - **Zati organikoaren gaikako bilketa**
 - Gaur egun materia organikoa biltzeko dagoen sistema pixkanaka-pixkanaka bi konpartimentuko kamioiekin ordeztzea.
 - Vitoria-Gasteizko Ekoizle Handientzako helburuak:
 - 2006-2007. urtea: gaikako bilketaren programa ezartzea.
 - 2010. urtea: ekoiztutako materia organikoaren % 80 biltzea.
 - 2007-2008. urtea: Añana, Kanpezu eta Arabako Errioxako biztanleen % 100en materia organikoa eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak gaika biltzeko aukera izatea.
 - 2009-2010. urtea: Arabako Lautada, Zuia eta Aiarako biztanleen % 100en materia organikoa eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak gaika biltzeko aukera izatea.
 - Gaikako bilketa Vitoria-Gasteizko herrietan:
 - 2010. urtea: biztanleen % 25en materia organikoaren gaikako bilketa ahalbidetzea.
 - 2013. urtea: biztanleen % 50en materia organikoaren gaikako bilketa ahalbidetzea.
 - 2015. urtea: biztanleen % 75en materia organikoaren gaikako bilketa ahalbidetzea.
 - 2016. urtea: biztanleen % 100en materia organikoaren gaikako bilketa ahalbidetzea.
- **EEHak Kudeatzeko Programa**
 - Eraikuntza eta eraispeneko hondakinaren artean dauden materialen % 40 birziklatzea edo berrerabiltzea 2006. urterako.
 - Eraikuntza eta eraispeneko hondakinaren artean dauden materialen % 70 birziklatzea edo berrerabiltzea 2016. urterako.
 - Amiantoa duten eraispeneko hondakinei tratamendu egokia ematea.
- **Kontrolik gabeko isurketa-fokuak eta ingurumena kontuan hartuz inguru desegokitan kokaturiko hondakindegia ltxeko eta Zigilatze Programara.**
 - ltxeko jarduerak eta ingurumena lehengoratzeko jarduerak abiaraztea.
 - Lege-esparruan ezarritako betebeharrekin bat ez datozen edo lege-esparrura egokitu ezin daitezkeen guneetan kokatutako inerteen zabortegiak ixtea eta lehengoratztea.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Hondakin Handiak eta Oihal Hondakinak Biltzeko Programa
 - Hondakin handiak
 - 2009. urtea: hondakin handien barruan sartzen diren materialen % 20 balorizatzea.
 - 2011. urtea: hondakin handien barruan sartzen diren materialen % 50 balorizatzea.
 - 2013. urtea: hondakin handien barruan sartzen diren materialen % 100 balorizatzea.
 - Oihalak
 - 2009. urtea: 2004. urteko kopuruaren % 50 balorizatzea.
 - 2012. urtea: 2004. urteko kopuruaren % 75 balorizatzea.
- IMIHA Biltzeko Programa
 - 2008. urtea
 - sortutako IMIHAren % 100 jatorrian sailkatzea, tratatzera bidali baino lehen.
 - eragile publiko edo pribatuen bidez, bereizketatik datozen multzoak balorizatzea.
 - hondakindegian tratatu gabeko IMIHArak ez botatzea.
- Hondakinak Ezabatze Aukeren Programa
 - 2007. urtea: tratatu gabe dauden etxeetako hondakinak ez botatzea Gardelegi zabortegean.
 - Gardelegi zabortegeak gaur egun duen edukiera handitzea.
 - Etxeetako hondakin guztien tratamenduaren kudeaketa Vitoria-Gasteizko biometanizazio eta konpostatze instalaziotik egitea Arabako Lurralde Historikoko.
 - Baztertu beharreko multzoaren murrizketa lortzeko, Jundizko ontzien instalazioa automatizatzea.
 - Erdi-mailako kudeaketa duten azpiegitura beharren ikerlana Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrillan.

5.2 HONDAKINEN AURREIKUSPENA PLANAREN EPEMUGAN (2006-2016)

5.2.1. Hiri Hondakinak (HH)

Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinak etorkizunean izango duten sorkuntza zehazteko orduan, hainbat faktore hartu dira kontuan, hala nola: populazioaren bilakaera, arlo sozioekonomikoa eta etxebizitzaren tipologia. Biztanleko HHen produkzio ratioa egonkorra izan da.

Egoera desberdinak proposatu dira, hasi baikorretik eta ezkorra arte, kontzientziario programen aurrean biztanleriak duen erantzuna ebaluatzeko. Programa horiek sorkuntza murriztea eta jatorrian bereiztea lortzeko egin dira, bai eta hondakinaren kudeaketarako aurreikusitako etorkizuneko azpiegiturak ondo dimentsionatzeko ere.

Benetazko sorkuntza datuen eta kapitulu honetan aurkeztutako aurreikuspenaren arteko eraketan oinarrituta Planaren jarraipen ona eginez, proposatutako programen arrakasta ebaluatu eta hondakinaren kudeaketaren alde indartsuak eta ahulak identifikatu ahalko dira, ondoren Planaren etorkizuneko berrikuspenak prestatzeko.

5.2.2. Etxeetako Hondakinak (EH)

Hondakinaren sorkuntzari buruzko aurreikuspenak egiteko, hiru egoera posible proposatu dira.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

Egoerak ezartzeko orduan, etxeetako hondakinen (EH) sorkuntzan Vitoria-Gasteizen urtez urte igoera txikiagoa dela pentsatu da, Arabako gainontzeko tokietan baino. Horren arrazoia honako hau da: biztanleak bizitza-maila jakin batera iristen direnean, BPGren eta HHen sorkuntzaren arteko lotura hautsi egingo da pentsatzen da eta, hala, udalerrri edo hiri bateko HHen produkzioa herri horretako biztanle kopuruaren arabera izango da soilik. Fenomeno hori lehenik eta behin Vitoria-Gasteizen gertatzea espero da, Lurralde Historikoko gainerako tokiekin konparatuz bizitza-maila handiagoa baita. Horrexegatik urte arteko sorkuntza tasa gutxiago igoko dela zenbatetsi da.


Informazio fidagarriaren falta eta Arabako LH-etako kuadrilla guzti-guztietan IMIHA eta ILH hondakinak kuantifikatzeko orduan dauden zailtasun handiak direla eta, etxeetako hondakin guztien sorkuntza aurreikuspena egitea erabaki da, beste azpikategorien etorkizuneko joera zenbatetsi gabe.

Honako hauek dira proposatutako egoerak:

- **Egoera ezkorra (I).** Sentsibilizazio programak egiten ez diren egoeratzat hartzen du hipotesi honek hondakinen sorkuntza lurraldean, edo programa horiek egingo balira, nahikoak ez izatea edo eraginkorrak ez izatea. Ekoizpen ratioaren urte arteko tasa % 2 igotzen dela hartzen da Vitoria-Gasteizen, eta % 2,75eko tasa Arabako gainontzeko tokietarako. Egoera ezkorra hipotesi honetatik abiatzen da: hondakinen sorkuntzak gora egiten du, biztanleko hondakinen sorkuntza handitzeaz gain, populazioak ere gora egiten duelako.
- **Egoera baikorra (II).** Aurreko hipotesian ez bezala, egoera honek kontzientziazio kanpainen erabateko arrakasta islatu nahi du, eta, horrekin batera, biztanleen parte-hartze aktiboa Planeko helburuak betetzeari begira. Premisa horiei jarraiki, ekoizpen ratioaren urte arteko tasa % 1 igotzen dela hartzen da Vitoria-Gasteizen, eta % 0,5eko tasa Arabako gainontzeko tokietan.
- **Espero den egoera (III).** Azkenik, hipotesi honek egoera errealago bat biltzen du, aurreko bien artean egongo litzatekeena. Kasu honetan, ekoizpen ratioaren urte arteko tasa % 1,2 igotzen dela hartzen da Vitoria-Gasteizen, eta % 1,5eko tasa Arabako gainontzeko tokietan. Zaborren sorkuntzan gertatzen den gorakada biztanleriaren hazkuntzagatik gertatzen dela islatzen dute datu horiek, biztanleko sorkuntza ratioak gora egin gabe.

Jarraian, Lurralde Historikorako etxeetako hondakinen sorkuntza aurreikuspenen grafikoak erakusten dira, urteko tonetan.

Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana



Iturria: berariaz landua

Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakinak (EEH)

EEHen sorkuntza ratioak ezartzeko, Vitoria-Gasteizko Udalak egindako inbentarioa, Laudioko Arantzar hondakindegiko sarreraren datuak eta El Torco harrobi zaharreko betetze-eremuko datuak hartu dira oinarritzat.

Hona hemen datuak:

EPEALDIA	EEH T/URTE GUZTIRA	KILO/BIZ./EGUN RATIOA
1999	498.668	5,65
2000	345.102	3,91
2001	687.995	7,79
2002	637.366	7,22
2003	717.175	8,12
2004	917.666	10,39
		Batezbestekoa 8,38*

*Iturria: EAEko eta AFAko Hondakin Inbentarioetako datuak
Batezbestekoa azken lau urteetako datuekin aterata da

Datu horiek Araba guztiko EEHen sorkuntza ezartzeko oinarri gisa erabiliko dira, hiru kokaleku horietan bildutako populazioak Araba osoko biztanleen % 83 hartzen baitu.

Azken 4 urtetako kg/biz./egun ratioaren batezbestekoa egiten badugu (2001. urtetik aurreragoko El Torcoko kudeaketaren daturik ez baitugu), Arabako Lurralde Historiko osorako balio hau ateratzen da: 8,38 kg/biz./egun.

8,38 kg/biz./egun ratio hori Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakin Plan Nazionalean (EEHPN) zenbatetsitako ratioa baino askoz handiagoa da, eta, batez ere, Plan horretako egoera ezkorren sorkuntzan ezarritakoa baino askoz ere handiagoa.


EEH hipotesia:

EEHPN (2001-2006) I. Egoera: 1,23 kg/biz./egun; II. Egoera: 1,23 kg/biz./egun; II. Egoera: 1,98 kg/biz./egun

EEHPNeko ratio horiek gorago zenbatetsitako ratioarekin erkatzen baditugu, 8,38 kg/biz./egun ratioa hartuko da egoera ezkor gisa sorkuntza aurreikuspena kalkulatzeko.

Hondakinaren sorkuntza aurreikuspena egiteko, beraz, hiru egoera posible proposatzen dira. Hauek dira egoerak:

- **Egoera ezkorra (I).** Aurreko hipotesian ez bezala, hipotesi honetan lurraldeko EEHen sorkuntza eraikuntza sektorearen gorakada mantentzen den egoeran dagoela hartzen da. Hala, kasu honetan, sorkuntza tasa 8,38 kg/biz./egun izango litzateke.
- **Egoera baikorra (II).** Hipotesi honen arabera, lurraldean EEHen sorkuntza eraikuntzako sektoreak bere hazkuntza egonkortzen duen egoeran ezartzen du. Hala, kasu honetan, sorkuntza tasa 1,23 kg/biz./egun izango litzateke.
- **Espero den egoera (III).** Azkenik, hipotesi honek egoera errealago bat biltzen du, aurreko bi muturreko egoeren artean egongo litzatekeena. Kasu honetan tasa 1,98 kg/biz./egun izango litzateke.



Iturria: berariaz landua

5.3 ALTERNATIBEN ANALISIA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

Planak ezartzen dituen helburuak betetzeko irtenbide egokienak aukeratzeko orduan dauden alternatibak Lurralde Historikoaren abiapuntuko bi baldintza kontuan hartuta proposatu dira. Hauek dira bi baldintza horiek:



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

Jada ezarritako eta sendotutako kudeaketa-eredua, Plan honetan azaldutako printzipioei eta jarraibideei erantzuten diena.

Lurraldeari dagokion baldintza bat: populazioa lurraldeko geografian zehar banatuta egotea, Vitoria-Gasteizko hirigunean izan ezik.

Hala, azpiegituren bilakaera harmoniko eta antolatua, lurraldearen orekan oinarritua, proposatzen du Planak helburu gisa.

5.3.1. Prebentzio aukerak

Hondakinen sorkuntzan prebentzioak Planaren ardatz nagusi izan behar du. Izan ere, hondakinen sorkuntzan aurrezte eta ingurumenaren kalitatea hobetzea eragiten du prebentzioak. Hala ere, printzipio hori praktikan aplikatzeak arazoak ekartzen ditu, Administrazioek ahalmen mugatua baitute biztanleriaren ohituren gainean edo kontsumorako produktuen eskaintzaren gainean.

Planean hartzen den irtenbideak jarduera konbinazio bat ezartzen du, administrazioaren eredu jarrera bultzatzen duena, eragile desberdinen esku-hartzea bilatzen duena eta trebakuntza, informazio eta sentsibilizazio lanekin bateratuko dena.

5.3.2. Gaikako bilketarako aukerak

Gaikako bilketarako, *a priori*, zenbait metodo proposatzen dira:

- **Espaloia:** gaikako bilketarako edukiontzia bide publikoan kokatuta daude, erabiltzailearengandik oso gertu, herritarren kolaborazioa ahalik eta gehien bultzatzeko.
- **Ekarpen-eremua:** kudeaketa merketzeko eta bide publikoetan hainbeste edukiontzi ez egoteko, edukiontziak edukiera handitu eta bilketa guneak gutxitzea pentsatzen da. Sistema horrek herritarrek gaikako bilketan laguntzeko ahalegin handiagoa egitea eskatzen du, espaloitako edukioentzietan baino distantzia handiago ibili beharko baitute biztanleek.
- **Atez ate:** aukera hau, hasiera batean, ekoizle berezien hondakinak jasotzeko erabiltzen da, ekoizle horiek, ezaugarri bereziengatik, bilketa mota hori beharrezkoa duten kasuetan. Etxeen esparruan ere erabil daiteke atez ateko bilketa, baina bilketa kostuak edukiontzietako bilketaren kostuak baino askoz handiagoak dira.
- **Garbiguneak:** etxeetan jasotzen ez diren hainbat hondakin mota gaika bildu eta gordetzen dituzten zentroak dira. Espazio jakin eta mugatu bat hartzen dute, non hondakin zati desberdinak jasotzeko edukiontzia instalatzen diren, ondoren hondakin horiek sailkatu eta gero tratamendu egokia eman ahal izateko: balorizazioa nahiz bilketa kontrolatua.

Planean hartutako irtenbidea gaikako bilketaren ezarpenaren gaur egungo egoeratik abiatzen da. Oraingo gaikako bilketak gorago aipatutako aukerak konbinatzen dituen metodo mistoa proposatzen du, alternatibek hiri hondakinen zati bakoitzerako duten eraginkortasunaren arabera. Hala, gaikako bilketarako sistema mantendu eta hobetzea bultzatzen du Planak eta, horretarako, zati organikoak biltzeko espaloiko edukiontzi berri bat proposatzen da (laugarren edukiontzi "marroia"), garbiguneen sarea handitzea eta xede diren talde jakin batzuentzat (hala nola, ekoizle handiak, dendak, etab.) atez ateko bilketa sistema ezartzea.

Era berean, ekarpen-eremuetan hondakin multzo batzuk jasotzea proposatzen da, esate baterako, inausketa eta lorezaintzako hondakinak, hondakin handiak eta etxeen konpontze-lan txikietatik datozen EEHak.

5.3.3. Hondakinak balorizatzeko aukerak



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

Hondakinen kudeaketa iraunkorra egiteko politika orearen elementu garrantzitsuenetarikoa da hondakinen balorizazioa. Ezin baldin bada hondakinen ekoizpena saihestu, hondakinak, ordena honetan, berrerabili, beren balio materiala edo energetikoa berreskuratu eta, beste aukerarik gelditzen ez denetan, era kontrolatuan ezabatu egin beharko dira zabortegira botaz.

Gaur egun hainbat teknologia daude merkatuan hiri hondakinak balorizatu ahal izateko: aurretiazko sailkatze tratamenduak, tratamendu biologikoak (biometanizazioa, konpostazioa) eta tratamendu termikoak (errautzea energia berreskurapenarekin, pirolisia, gasifikazioa). Guri dagokigun arloan, hartutako irtenbideak eztabaida ugari piztu zituen, baina Plana egin baino lehen erabaki zen. Hala, aurretiazko sailkatzea, Arabako etxeetako hondakinen digestio anaerobioa edo biometanizazioa eta digestio aerobioa edo konpostazioa konbinatzen zituen sisteman oinarritutako jarduera ezarri zen.

Planean hartutako irtenbidea, beraz, zati organikoaren gaikako bilketaren ezarpenaren bitartez instalazioen funtzionamenduaren eraginkortasuna optimizatzean datza. Era berean, arreta jarriko zaio zati organikoa konpostatzearen bidez etxeetako hondakinak balorizatzeko metodoak bultzatzeari, eta, horretarako, oso aproposak dira gure lurraldean etxebizitzak sakabanatuta dauden modua eta lorategia duten etxebizitza familiabakarren igoera.

Beste alde batetik, eraikuntza eta eraispenerako hondakinen arloan, beste erabaki mota bat proposatzen da, balorizazioa bultzatzeari indar gehiago jartzen diona hondakinen bitartez ohiko ezabaketa egiteari baino.

Ildo horri jarraiki, Planaren jardueren barruan daude harrobi zaharren betetze sekuentzialen prozesuei bultzada ematea, isurketa zona abandonatuei eta erabilerarik ez duten hondakindegia zaharrei bultzada ematea lehengo itxura bueltatzeko eta narriatutako eremu horien ingurumena berrezartzeko eta, azkenik, Vitoria-Gasteizko EEHen tratamendu instalazioa sustatzea, instalazio hori izango baita garrantzitsua Lurralde Historikoan neurriei eta edukierari dagokionean. Planean ezartzen denez, indusketetako harkaitzak eta lurrak jasoko dituzten instalazioek etorkizunean berriro erabiltzeko aukera duten materialen bilketarako bi eremu izan beharko dituzte.

Ezaugarri horiek dituen bigarren instalazio bat egitea agian bideragarria ez dela pentsarazten dute EEHen sokuntza zifrek. Hala ere, aurretiaz tratatu ez diren hondakinen azken ezabaketa minimizatzeko helburua jartzen dio administrazioak bere buruari; horregatik, EEHak tratatzeko instalazio mugikorren zerbitzu bat martxan jartzeko proposamena egiten du.

5.3.4. Ezabatze aukerak

Hondakinen kudeaketako hierarkian azken aukera hondakinak era kontrolatuan ezabatzea da.

Planak hartu duen irtenbidea hau da: prebentzio, gaikako bilketa eta balorizazio irtenbideen optimizazioaren bidez Gardelegiko zabortegian sartzen diren hondakinak murriztea. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen arloan, eta betiere prebentzio eta balorizazio jarduerak bultzatuz abiatuta, behar-beharrezkoa da gogora ekartzea gaur egun egoera errealista batek ezin dituela ezabatze-eremuak alboratu. Hori dela eta, hondakin multzo hori azkenengoz botatzeko zona kontrolatuak gaitzea jasotzen du Planak, hondakin horien isurketa kontrolatugabea ezabatzeko eta, era berean, hau jasotzen du: meatze ustiatzeko zaharretako, isurketa zona abandonatuetako eta erabiltzen ez diren hondakindegia zaharretako ingurumena lehengoratzeko indusketetako lurrak berrerabiltzea.

Irtenbide horren barruan premisa gisa ezartzen da lehen-mailako hondakinak Gardelegiko zabortegira sartzeko mugatuta egongo dela tratatu ez daitezkeen hondakinentzat soilik; hau da, tratatu gabeko lehen-mailako hondakinik ezingo da sartu zabortegira.

Planean azken xedeak **tratatu gabeko hondakinik** zabortegira ez botatzea ezartzen du. Helburu hori betetzeko gaur egungo kudeaketa politikak baino eraginkortasun handiagoa duten politikak beharko dira, gaur egun inolako tratamendurik jasotzen ez duten hondakin multzoen berriazko

tratamenduak ezarri beharko dira eta administrazio publikoek ahalegin handia egin beharko dute lurraldeko biztanleen kontzientziazioan eta trebakuntzan maila goratu nahi bada helburu hori lortzeari begira.

5.4 JARDUERA PROGRAMAK

5.4.1 Prebentzio Programa

5.4.1.1 Xedeak

Hondakinen sorkuntza prebenitzeko, hau da Planean proposatutako helburu nagusia:

- 2012. urterako pertsona bakoitzak sortzen duen hondakin kopurua 2001. urteko mailara jaistea.

5.4.1.2 Jarduerak eta neurriak

Hondakinen sorkuntzako prebentzio printzipioari dagokionez, Erkidegoko estrategiak, hondakinak kudeatzeko orduan, bereziki ondorengo neurri hauek jorratu behar direla aipatzen du: hondakinen arriskugarritasuna murriztu (hondakin arriskutsuak beren ezaugarrien arabera bereizi behar dira horretarako prestatutako tokietan), berrerabilpen sistemak bultzatu, tresna ekonomikoak era egokian erabili (isurketa tasak, kostu guztien internalizazioa biltzen duten hondakinen biltzaile tasak, sektoreko elkarteekin sinatutako borondatezko hitzarmenak), ingurumen ikuskaritza sistemak martxan jarri eta hezkuntza arloan eta kontsumitzaileari emandako informazioan neurriak ezarri. Eskumeneren esparruan, bestela, argi eta garbi dago Planak Erkidegoko estrategian zehaztutako bideari jarraituko diola.

Hondakinak jatorrian murriztearen bitartezko prebentzioaren esparruan, Planak ondorengo jarduerak hauek abiaraziko ditu:

- Minimizazio planak eta foru -{}-eta udal instituzioen jardueren ondorioz sortutako hondakinen kudeaketa planak ezartzea bultzatu. Hondakinen sorkuntzan prebentzioaren kontzeptua eta prebentzioaren abantailak ezagutarazi. Foru eta udal administrazioen lanpostuetan prebentziorako gomendioen inguruko gida praktikoa idatzi.
- Foru eta udal erakundeek egindako ondasun eta zerbitzuen kontratazio publikoetan sortutako hondakinen prebentzio eta minimizazio irizpideak ezartzea. Irizpide eta erabakiak ezarriko dira, kontratazio publikoaren prozesuetan hau ahalbidetuko dutenak:
 - Bizitza erabilgarriaren amaieran tratamendu zaila duten hondakinak bihurtzen diren ondasun edo produktuak erostea edo erabiltzea saihestu edo minimizatzea.
 - Fabrikazioan hondakin kopuru handiak sortzea eragiten duten produktuak erosi edo erabiltzea saihestea edo minimizatzea.
 - Aurrekoa ahaztu gabe, hondakin horiek birziklatu edo leheneratu ondoren sortzen diren produktuak eta bizitza erabilgarri luzea duten produktuak erostea edo erabiltzea bultzatzea.
 - Etiketa ekologikoa duten produktuak erabiltzea bultzatu, eta lehiaketa publikoko baldintza-zerrendetan produktu horietarako berariazko arauak ezartzea.
 - Administrazioaren lanetan eta administrazioak beste erakunde publiko edo pribatuekin dituen harremanetan erabiltzen diren paperezko agiriak murrizteko praktika onen neurriak hartzea, hala nola, agiriak euskarri informatikoan erabiltzea, agiriak bi aldeetatik inprimatzea, etab.

Herri Administrazioen Kontratuen Legean ezarritako kontratu guztien (obra kontratua, obra emakida, zerbitzu publikoaren kudeaketa, hornidura, aholkularitza eta laguntza, eta zerbitzuak) ezaugarrietara eta garrantziara egokituko dira irizpideak.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

Administrazio klausula zerrendatan eta foru eta udal administrazioek deitzen dituzten lehiaketa publikotako manu teknikoen zerrendatan azaldu beharko dute irizpideek, klausula egokien bidez.

- Erakunde kudeatzaileen (udalak eta kuadrillak) eta sektoreko elkarten eta jardueretan hondakinak minimizatzen bideraturiko elkarten arteko borondatezko hitzarmenak bultzatzea. Xede erakundetzat hartuko dira, gutxienez, denda txikiak eta merkatarien elkarteak, merkataritzako azalera handiak eta banaketa kateak, kontsumitzaileen elkarte eta federazioak, eta hondakinen kudeaketa garestiagoa egiten duten hondakinen sorkuntzaren ardura duten sektoreko enpresa-elkarteak, konfederazioak edota gremioak.
- Tasak belaunaldiko ordainketa kontzeptua aplikatuz pixkanaka egokitzea bultzatzea. Proposamen horrekin hondakin gutxiago sortzea nahiz hondakinak birziklatzea saritu nahi da. Helburu hori lortzeko, udalek ordenantzak ezarri beharko dituzte, sorkuntzagatiko ordainketa antolatzen.
- Tresna ekonomikoak erabiliz, gaikako bilketa egitera bultzatzeko sistemen ezarpena aztertzea.
- Azalera handiekin lankidetzat hitzarmenak sinatzea berrerabili daitezkeen erosketak poltsak erabil daitezkeen sustatzeko.
- Festa eta ospakizunetan hondakin gutxiago sor dadin praktika onen ezarpena sustatzea (paperezko edo plastikozko ontziteria erabiltzea baztertu eta ontziteria ekologikoak ezartzea).
- Herriko jaietan "edalontzi berdea" ezartzea.

5.4.2. Gaikako Bilketa Hobetzeko Programa

5.4.2.1 Xedeak

- Multz bakoitzarentzat ondoren ezartzen diren murrizketak (ehunekotan), eta Planak irauten duen epean gaika bildutako eta etxeetako hondakinen artean dauden hondakin multzo berezietan murrizketak.
- Paper-kartoen zatia:
 - 2009. urtea: 2004. urteko kopuruaren % 60.
 - 2012. urtea: 2004. urteko kopuruaren % 75.
- Beiraren zatia:
 - 2010. urtea: 2004. urteko kopuruaren % 80.
- Zur, metal eta plastikoen zatia:
 - 2009. urtea
 - Metalak: 2004. urteko kopuruaren % 50.
 - Zurak: 2004. urteko kopuruaren % 15.
 - Plastikoenak: 2004. urteko kopuruaren % 22,5.
 - 2012. urtea
 - Metalak: 2004. urteko kopuruaren % 75.
 - Zurak: 2004. urteko kopuruaren % 30.
 - Plastikoenak: 2004. urteko kopuruaren % 40.
 - Lurraldeen arteko orekan oinarrituta, gaikako bilketarako azpiegiturak harmoniaz eta era antolatuan garatzea.

Zatia	2004 datuak (%) *	2009 helburu zifra (%)	2010 helburu zifra (%)	2012 helburu zifra (%)
Papera/kartoiak	9,64	3,86	-	2,41
Beira	4,88	-	0,98	-
Metalak	10,4	5,2	-	2,6
Zurak	3,22	2,74	-	2,25
Plastikoak	6,29	4,87	-	3,77



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

* Ehunekotan adierazitako datuak 2004an egindako karakterizaziotik atera dira. Egindako karakterizazioen batezbestekoak dira.

5.4.2.2 Jarduerak eta neurriak

Ezari diren helburuak hiri hondakinaren barnean dauden multzoen gaikako bilketa eraginkorra optimizatuz lortuko dira, bai eta ondorengo jarduera hauek eginez ere:

- Arabako Lurralde Historikoan puntu garbien edo garbiguneen sarea handitu. Gaur egun 6 garbigune ari dira funtzionatzen, bat martxan hasteko prestatze-fasean dago eta beste bat proiektu-fasean. Sarea honen bidez osatu edo optimizatuko da:
 - Egungo garbiguneen ezaugarriak egokitu edo optimizatzea gaikako bilketa beharren arabera, eta instalazioak ahalik eta hondakin multzo gehienentzat egokitzea.
 - 2006-2010 epean garbiguneen sarea osatzea Oion, Murguía, Legutianano, Asparrena, Santikurutze Kanpezu, Labastida eta Rivabellosan. Azken bi kokapen horiek ez dira Plan honekin batera doan aurrekontuan azaltzen, eta horiei dagokienez, komenigarria litzateke Labastida eta Haroren (Arabako Errioxa) artean hitzarmena egotea Harok duen garbigunea Labastidak erabili ahal izateko. Era berean, Añanako Kuadrillaren eta Miranda de Ebro-ren artean ere hitzarmena sinatzea ona litzateke Lantarón, Erribera Beitia, Armiñón, Berantevilla eta Zambranak hango garbigunea erabili ahal izateko. Era berean, Aldundia bitarteko izango da Zuiako Kuadrillak Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Debagoiengo Mankomunitatearekin izenpetu ditzakeen erabakietan, Kuadrillako biztanleei azken horiek kudeatutako Garbiguneak erabiltzeko aukera eskaintzeko.
Ezin badituzte akordio horiek egin, aurreikusitako Garbiguneak eraikiko dira.
 - 2009. urtetik aurrera hasierako sare hori instalazio berriekin handitzea. Hiru instalazioa aurreikusten dira, txikiagoak eta ondo egokituak, eskaera handiagoa duten edo geografikoki estaldura txikiagoa duten eremu hauek har ditzaten: alde batetik, Valdegoviako zona, eta, bestetik, Artziniega eta Aiarako zona. Halaber, Elciegon beste puntu garbi bat eraikitzea pentsatzen da. Garbigune horiek 2009-2012 epean eraikiko dira.
 - Garbiguneak ezarri baino lehen, Foru Aldundiaren eta garbigunea eraikiko den udalaren artean lankidetzat hitzarmenak ezarriko dira, inguruko udalerriek etorkizunean garbigune horiek ustiatu eta erabili ditzaten bermatzeko. Garbigune sarearen diseinua lurralde osoko plangintzaren irizpideei jarraiki egin dela aintzat hartuta, eta beraz, instalazioaren zerbitzuak jasoko dituen herriguneari dagokionez instalazioa handiagoa izango denez, arestian aipatutako hitzarmenek nahitaez bilduko dute inguruko udalerriek garbiguneak erabiltzeagatik gastuetan egingo duten ekarpena, udalerririk horietako etxebizitza kopuruaren arabera izango dena.
 - Garbiguneen Kudeaketa eskualde mailakoa izan behar da, eskualde mailan dauden kuadrilla edo erakunde kudeatzaileen bidez egindakoa. Dagoeneko eraikita eta funtzionamenduan dauden Garbiguneei edo laster egoera horretan egongo diren Garbiguneei aplikatzekoak diren berariazko formulen bidez egingo da kudeaketa. Udalerririk interesdunek horiek onartu beharko dituzte aurretiko baldintza moduan, bai eraikuntza hasi aurretik bai Aldundiak azpiegitura eman aurretik.
 - Garbiguneetan asimilatu ahaliko diren hondakinak, gutxienez, hauek izango dira:
 - Papera eta kartoia
 - Metalak
 - Bateriak
 - Pilak eta fluoreszenteak



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Motorretako olio erabiliak
 - Landare-olioak
 - Zura
 - Beira eta beira laua
 - Ontziak
 - Lerro marroia, zuria eta grisa
 - Hondakin arriskutsuak
 - Erradiografiak
 - Pneumatikoak
 - Plastikoak eta hondakin handiak
 - Obra hondakinak
 - Inausketako hondakinak
 - Oihalak
 - Tonerrak
- Egungo gaikako bilketarako baliabideak indartuko dira probintziako bilketa-eremua izango duten bi puntu berde mugikorrez balliatuz.
 - Ontzien eta beiraren edukiontzi-sarea sendotuko da, ECOVIDRIOrekin dauden hitzarmenez gain, beste hitzarmen gehigarrien sustapenaren bidez.
 - Arabako Foru Aldundiak koordinatuko duen garbiguneen kudeatzaileen foroa sortzea puntu garbien sinergiak aprobetxatzeko. Baliteke garbiguneak batera koordinatzeko aukera proposatzea.
 - Garbiguneen eskualdeko erabilera sustatzea.
 - Arabako udalerrri guztietako merkataritza, ostalaritza eta industria guneeetatik datozen zatiak, errazago birziklatzen direnak, "atez ate" biltzeko sistema bereziak pixkanaka ezartzeko aukeraren aurretiazko azterketak egitea.
 - Urteroko arloko azterketa egitea ekarpen-eremuetan egun dauden gaikako bilketa puntuak egoera onean daudela bermatzeko. Gainera, puntu horien balizko handitze/egokitze beharra, atzemandako gabeziak eta hobetzeko neurrien ezarpena kontuan hartuko dira.
 - 2006. urtean, edukiontziak jartzeko beharraren analisi zehatza egitea, Lurralde Historikoaren egoera sozioekonomikoaren bilakaera ikusirik eta hiri hondakinaren arloan egun dauden aukera berriak ikusirik beharrezko jarduerak barne hartuko dituena. Analisi horretan obra-hondakinaren gaikako bilketa ere jasoko da. Kuadrillak izango dira hori berrikusi eta atal horretan dituzten beharrak zehaztuko dituztenak.
 - Plan honetan zuzenean aipatu ez diren hiri hondakinaren azpimultzoen bilketan eta kudeaketan arrakasta gehien izan duten esperientzien inguruko berriazko azterketak egitea: Lurralde Historikoan aplikatu ahal daitezkeen eta bideragarria ote den zehazteko analisia, esperientzia horiek Arabako errealitateara egokitzeko beharrak eta horiei dagokien lehentasuna ematea, Plan honetan ezarritako helburuen arabera.

5.4.3. Trebakuntza, Informazio eta Sentsibilizazio Programa

5.4.3.1 Xedeak

- Komunikazioa bultzatzea, gaikako bilketa optimizatzeari begira, arlo honetako eragileak trebatu, informatu eta kontzientziatzeko tresna indartsua den heinean.
- Informazioa jaso eta ematean instituzioek nagusitasuna izatea oinarritzko gaietan informazio okerra, hutsuneak eta gabeziak saihesteko.
- Interneten bidez informazioa eskuragarriagoa bihurtzea.
- Planaren helburuak bete daitezzen lortzeko, parte-hartzaile aktibo gisa zenbait eragileei duten garrantziaz jabearaztea.



5.4.3.2 Jarduerak eta neurriak

- Arabako hiri hondakinen kudeaketari eta arazoei dagokienez, trebakuntzan, informazioan eta sentsibilizazioan aurrera egiteko baitezpadako tresna gisa komunikazioa sustatzeko neurri zehatzak ondorengo hauek dira:
- Kanpainak egitea. Hezkuntza arloko jarduerak eta kontzientziario jarduerak egiteko sortu diren elkarte, erakunde eta irabazi asmorik gabeko organizazioekin hitzarmenak sinatzea sustatu. Hitzarmen horiek, besteak beste, arlo hauek jorratuko dituzte:
- Unitate didaktikoak eta ikusentzunezko unitateak egitea, bai eta ingurumen hezkuntzarako materiala ere.
- Landutako material didaktikoa zabaltzea.
- Hondakinen kudeaketa egiten duten instalazio eta azpiegiturretara bisitak programatzea.
- Hezitzaileak trebatzeko kursoak diseinatzea.

- Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinen sorkuntza eta kudeaketaren etengabeko monitorizazio sistema bat diseinatzea, ezartzea eta mantentzea. **Hiri Hondakinen Behatokia** proposatzen da hiri hondakinen kudeaketaren inguruko alderdi guztiak koordinatzeko eta beren jarraipena egiteko tresna gisa. Hondakinen sorkuntza eta kudeaketaren inguruko informazioa bildu nahi du, kudeaketarekin lotura duten erakunde guztiak (enpresa publiko eta pribatuak, kuadrillak, udalak etab.) elkartzeko foro bat egin eta informazio trukaketa erraztu nahi du, horrela hondakinei buruzko datu guztiak multzokatuta eta homogeneizatuta egon daitezten eta errealitatearen benetazko irudi bateratua lor dadin. Horrekin guztiarekin kudeaketa sistemaren barruan dauden sinergia komunak aprobetxatzea erraztuko litzateke eta Arabako lurralde osoarentzat mesedegarri izango litzateke.

Hondakinen behatokiaren eginbeharrak izango dira administrazioari **Laguntza Teknikoa** ematera bideraturikoak, besteak beste, eginkizun hauek bilduko dituztenak:

- Lurraldeko kuadrilletako eta udaletako hiri hondakin multzoen sorkuntza datuak aldi berean biltzea. Arreta berezia jarriko zaie hondakin zati batzuei, hain zuzen ere, orain arte euren inguruan jasotako informazioa kalitate txarrekoa denei. Hondakinen sorkuntzari eta kudeaketari buruzko datu eguneratuen eta kalitate oneko datu-base bat lortuko litzateke, eta hondakinen sorkuntza eta kudeaketa zentralizatzen direnean datuen joan-etorria are hobea izango da eta hondakinen tratamendua sistematizatuko egingo da.
- Hondakinen kudeaketa egokian dauden hutsuneen analisia. Behatokiaren ardura izando da azpiegitura berrien beharrak eta jadanik badauden azpiegituren handitze edo berritze beharrak zein diren identifikatzea, gaikako bilketaren antolakuntzan hobekuntza posibleak proposatzea eta zaborren kudeaketa sistema egokitu eta hobetzea bilatzen duten proposamenak egitea.
- Hondakinekin lotutako ingurumen trebakuntzaren eta sentsibilizazioaren inguruko lan-programak eta jardunbideak ezartzea. Sentsibilizazio, trebakuntza eta publizitate jarduerak koordinatuko dira, eta mezuak eta komunikazio formatuak bateratuko egingo dira mezuaren hartzaila izango den biztanle sektorearen arabera: hezkuntza alorra (produktuen birziklatzea, zikloa eta bizitza), etxeko alorra (biziklatzea, ontzien kontsumoa murriztea, ontziekin sortzen diren hondakinak murrizteko janarien kontserbazioa hobetuko duten elementuak erabiltzea), lorategia duten lursailen jabeak (inausketa eta lorezaintzako hondakinen kudeaketa egokia, etxean konpostatzea), merkataritza eta industria alorrak, etab.



- **Kudeaketa-aginduen** bitartez, behatokiaren ardura izango da kuadrillek eta udalek baliabide materialen, ibilgailuen eta instalazioen erabilera partekatua egitera bideratzen duten programak praktikara eramatea (puntu berde mugikorra, EEHen sailkatzaile mugikorrak, inausketa eta lorezaintzako hondakinak biltzeko hondakin handien kudeaketa, oihal-hondakinen bilketa, etab.) eta, horrekin batera, azterketak egitea eta, hondakinen azpimultzo berrien arloan, esleitu dakizkiokeen zerbitzuak eskaintzea.
- Etxeko hondakinen kudeaketa iraunkorrarekin lotura duten gizarte-eragileen foro iraunkor bat antolatzea eta zuzentzea.
- Eskaintako zerbitzuen kostu errealak bizilagunen tasen bidez estaltzeko tokiko erakundeek duten helburua betetzeari buruzko informazio ekonomikoaren analisia.

5.4.4. Instituzioen Laguntzarako Programa

5.4.4.1 Xedeak

- Parte hartzen duten administrazio publikoen artean jarduera eta lankidetzazko prozedurak optimizatzea, eta horretarako sinergiak aprobetxatu eta jarduera irizpide homogeenok ezartzea.

5.4.4.2 Jarduerak eta neurriak

Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinen kudeaketan parte hartzen duten administrazioen arteko koordinazio-lanak jarduera hauen bitartez optimizatuko dira:

- Isurketa kontrolatugabearen dagokionez, ikuskapen eta kontrol lanetan administrazioen arteko jarduerak koordinatuko protokoloa ezartzea. Protokoloak, gutxienez, informazio hau bildu beharko du:
 - Prozeduraren aplikazio-eremuaren eta udalen eta kuadrillen erantzukizun zehaztapena. Hirigintzaren alorrean egin daitezkeen jarduerak.
 - Jarduera, komunikazio eta erregistro moduak.
 - Ikuskapen eta kontrol lanen eraginkortasunaren jarraipena egiteko moduak.
- Arabarekin muga egiten duten udalekin lankidetzazko hitzarmenak sinatzea hondakin zati jakin batzuen bilketa, garraioa eta tratamendua egiteko (ontziak, inausketako hondakinak, EEHak, etab.). Ezer baino lehen, Gaztela-Leongo Juntak, Nafarroako Foru Komunitateak, Errioxako Autonomia Erkidegoak eta beste Euskal Foru Aldundiek adostasuna erakutsi behar dute.
- Tokiko Agenda 21eko prozesuen bitartez udal esparrua sustatzea. Tokiko Agenda 21eko prozesuak hondakinen arloan eta kontsumo ohituren aldaketan prebentzio eta kudeaketa jarduerak optimizatzea bideratuta daude.
- Arautegiaren garapena: Planean aurreikusten diren jarduerak arau kutsua duten tresna batzuen bitartez eratuko dira; arauak Arabako Foru Aldundiaren eskumen-eremuaren barruan ezarriko dira, eta bat etorriko dira udal-eremuan jadanik ezarritako arauekin. Horrela, funtsezko alderdi ekonomikoak arautuko lirateke, hala nola, zaborren bilketako udal tasak ezartzeko irizpide homogeenok zein izango diren zehazten duten gomendioak onartzea.
- Bizilagunen tasak kalkulatzeko azterketa ekonomikoak egitea, eta zerbitzuen kostuak kalkulatzeko irizpide homogeenok ezartzea.
- Koordinazio-lanen barruan, urteroko laguntza tekniko bat sortuko da Planaren barruan, hondakinen bilketako antolakuntzari buruzko azterketak egiteko, bilketa sistematan aldaketak egiteko, tasak aldatzeko beharrak aztertzeko, arautegiaren garapena moldatzeko, etab. Laguntza hori dirulaguntza lerro baten bidez eman ahal izango da. Horri esker, Kuadrilla bakoitzak alor bakoitzari buruzko azterketak zuzenean egin ahal izango ditu eta, egokia baderitzo, horiek kontratatu eta zuzendu ahal izango ditu.



- 2008. urtetik aurrera, 5 urteren buruan bizilagunen tasek kuadrillek eta udalek eskaintzen dituzten zerbitzuen kostu erreal guzti-guztiak estaltzen dituztela egiaztatuko du Foru Aldundiak. Horretarako, zerbitzu horiez arduratzen diren erakundeek helburu hori bete dutela frogatzen duten egiaztagirak aurkeztuko dituzte Foru Aldundian urtero (ekitaldia itxi ondorengo lehen hiruhilekoan) Planaren indarreko epea bukatu arte. Dokumentu horietan udal hondakin kudeaketa programako likidazio ekonomikoari buruzko datuak ere bildu beharko dira eta, horretarako, programa hori gainontzeko programetatik argi eta garbi bereiztuta egon beharko da aurrekontuetan.

Oreka finantzarioaren helburua 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen bete beharko da. Hori gertatzen ez bada, Ingurumen Sailak ematen duen diru-laguntzarik ezingo du jaso tokiko erakundeak desoreka horrek dirauen bitartean.

5.4.5. Materia Organikoa Kudeatzeko Programa

5.4.5.1 Xedek

Ondorengo hauek dira materia organikoa kudeatzeko Planean ezarri diren helburuak:

- **Konposta**
 - 2008. urterako hiri hondakin pisu osoaren % 11 konpost eran balorizatzea.
 - Etxeetan konposta ekoiztea bultzatzea, batez ere nekazaritza eremuetan.
 - Konpostaren merkaturako erabilera sustatzea; eremu publikoan zein pribatuan konpostaren ezaugarriak eta erabilerak ezagutarazi.
- **Zaborteigira botatzen den materia biodegradagarri kopurua murriztea**
 - 2006. urtea: zaborteigira bideratzen den hiri hondakin biodegradagarri kopuruak ez du gaindituko 1995. urtean sortutako hiri hondakin kopuru osoaren % 75.
 - 2009. urtea: zaborteigira bideratzen den hiri hondakin biodegradagarri kopuruak ez du gaindituko 1995. urtean sortutako hiri hondakin kopuru osoaren % 15.
- **Zati organikoaren gaikako bilketa**
 - Gaur egun materia organikoa biltzeko dagoen sistema pixkanaka-pixkanaka bi konpartimentuko kamioiekin ordeztzea.
 - Vitoria-Gasteizko Ekoizle Handientzako helburuak:
 - 2006-2007. urtea: gaikako bilketaren programa ezartzea.
 - 2010. urtea: ekoiztutako materia organikoaren % 80 biltzea.
 - 2007-2008. urtea: Añana, Kanpezu eta Arabako Errioxako biztanleen % 100en materia organikoa eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak gaika biltzeko aukera izatea.
 - 2009-2010. urtea: Arabako Lautada, Zuia eta Aiarako biztanleen % 100en materia organikoa eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak gaikako biltzeko aukera izatea.
 - Gaikako bilketa Vitoria-Gasteizko herrietan:
 - 2010. urtea: biztanleen % 25en materia organikoaren gaikako bilketa ahalbidetzea.
 - 2013. urtea: biztanleen % 50en materia organikoaren gaikako bilketa ahalbidetzea.
 - 2015. urtea: biztanleen % 75en materia organikoaren gaikako bilketa ahalbidetzea.
 - 2016. urtea: biztanleen % 100en materia organikoaren gaikako bilketa ahalbidetzea.

5.4.5.2 Jarduerak eta neurriak

Biohondakinaren tratamenduaren inguruan laster indarrean sartuko den Europako arategiak bultzatuta, gaikako bilketaren inguruan egingo diren jarduerak etxeetako hondakinetatik, produkzio-zentro handietako hondakinetatik (merkatuak, egoitzak, etab.) eta inausketa eta lorezaintzako hondakinetatik datozen hondakin materia organikoko zatiaren bilketa berezitua ahalbidetzera bideratuta daude. Hori eginez, hiri hondakinaren tratamendurako fabrikako biometanizatze eta konpostatze instalaziotan hondakin horiek ondoren izango duten kudeaketa errazten da, eta kalitate oneko eta potentzial agronomiko handiko konposta lortzeko baldintza aproposak erdiesten dira.

- Etxeetako hondakinaren artean aurki daitekeen zati organikoaren (materia biodegradagarria eta inausketa eta lorezaintzako hondakinak) gaikako bilketa egiteko berariazko beste edukiontzi baten ezarpenean oinarritutako sistema ezartzea (laugarren edukiontzi espaloian, marroia). Edukiontzi horien edukia zuzenean konpostatzera joango da, biometanizatze eta konpostatze instalaziora. Edukiontziaren zati organikoa programa honetako helburuetan adierazitako bi konpartimentutako kamioietan bilduko da, gaikako bilketa eragingarria izan dadin. Arabako Foru Aldundiak jarriko ditu bitartekoak hori guztia aurrera eraman ahal izateko.
- Arabako Lurralde Historiko osoan produkzio-zentro handietan sortutako materia organikoa "atez ate" biltzeko sistema bat ezartzea.
- Etxean konposta egitea bultzatzeko ekimenak sustatzea.
 - Konposta erabiltzearen onurak zeintzuk diren ezagutarazteko informazio eta trebakuntza kanpainak egingo dira. Ondorioz, ongariak erosten diru gutxiago gastatuko da.
 - Etxean konposta egiteko teknikak eta konpostaren onurak ezagutarazteko tailer praktikoak emango dira. Berdeguneak dituzten etxeetara bideratuta, konpostagailuak erosteko diru-laguntzak ematea.
 - Etxean konposta egiten dutenentzat informazio bideak sortzea: kontsulta telefonoa, webgunea, etab.
- Foru eta udal administrazioek egiten dituzten agronomia, baso edo lorezaintza arloko proiektu eta ekimenetan konpostaren erabilera bultzatzea.
- Amurrión dagoen inausketako eta lorezaintzako hondakinaren gaur egungo instalazioko makinak eta eraikinak handitzea eta egokitzea 2010ean; instalazioak eskualde-eremua izango du, Aiarako Kuadrillari dagokiona.
- Kalitate oneko konposta lortzeko dauden teknika hobereenen inguruko azterketa.

5.4.5.3 Inausketa eta lorezaintzako hondakinetzako berariazko jarduera eta neurriak

Arabako kuadrilletan sortutako hiri hondakinaren analisia egin ondoren, inausketa eta lorezaintzako hondakinaren kopurua oso handia dela ikusi ahal izan da, % 26, hain zuzen. Datu hori aintzat hartuta, hondakinaren zati hori gainerako hiri hondakinetatik bereizteko jarduera eta neurri batzuk ezarri nahi dira hondakin horiek hobeto aprobetxatu ahal izateko.

Hauek dira aurreikusitako jarduerak:

- Zati hori jasotzeko 20 m³-ko berariazko edukiontziak jartzea. Edukiontziak hiriguneetako Bilketa Unitateetan kokatuko dira, eta EEHak eta hondakin handiak jasoko dituzte.
- Egokitze epea igaro ondoren, inausketako eta lorezaintzako hondakinak zati organikoa jasotzeko berariazko edukiontziaren ez beste inon botatzea debekatuko duten Ordenantzak sortzea bultzatuko da.
- Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrillan inausketa eta lorezaintzako hondakinekin konposta egiteko instalazioa eraikitzea.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

- Parkeetako eta lorategietako zerbitzu publikoek nahiz ekoizle pribatuek (lorezaintzako enpresak) jasotako inausketa eta lorezaintzako hondakinak gaika biltzeko sistema bat jartzea Arabako Lurralde Historiko guztian. Hondakin horiek zuzenean Vitoria-Gasteizko tratamendu instalaziora joan beharko dute.

Inausketa eta lorezaintzako hondakinak biltzeko ereduazko saioak amaitu ondoren, eta horren emaitzak ikusi ondoren, etxeko zati organikoa biltzeko edukiontzi marroia eta inausketen edukiontzia batera jartzeko ahalegina egingo da.

5.4.6. EEHak Kudeatzeko Programa

5.4.6.1 Xedeak

- Eraikuntza eta eraispenerako hondakinen artean dauden materialen % 40 birziklatzea edo berrerabiltzea 2006. urterako.
- Eraikuntza eta eraispenerako hondakinen artean dauden materialen % 70 birziklatzea edo berrerabiltzea 2016. urterako.
- Amiantoa duten eraispenerako hondakinei tratamendu egokia ematea.

5.4.6.2 Jarduerak eta neurriak

Arabako Lurralde Historikoko EEHen bilketa eta kudeaketa hobetzeko proposatu diren jarduerak Arabako lurraldean jadanik badauden alternatibak egokitzetik abiatzen dira. Hauek dira jarduera zehatzak:

- Berriazko edukiontziak instalatu eta Bilketa Unitateak (BU) sortzea. Berriazko edukiontzi horietan bota eta gaika bilduko diren hondakinak hauek dira: etxeetako berritze-lan txikietatik datozen EEHak eta hiriguneetatik datozen hondakin handiak. Planaren arabera, probintziako hirigune gehien-gehienetan jarriko dira Bilketa Unitate horiek, 25 biztanle edo gehiago dituztenetan, nahiz eta inbertsio aurreikuspenetan biztanle gutxiagoko herri batzuk ere sartzen diren, zabalera geografiko handiko eremuetan daudenak eta herriguneen artean distantzia handiko eremuetan daudenak. Vitoria-Gasteizko hirigunean, hala eta guzti ere, ez dira mota horretako Bilketa Unitateak jarriko. Izan ere, hondakinen edukiontziak biltzen dituzten enpresen jardura hain dago finkatuta ezen, BUak instalatuko balira, etxeetako zabor eta hondakin handi gehiago jasoko liratekeela (altzariak, lastairak, etab.) material inerteak baino; beraz, beste arazo bat sortuko litzateke arazoari irtenbidea eman beharrean. Era berean, garbigunea eraikitzea aurreikusten den herriguneetan ere ez dira horrelako edukiontziak jarriko. Obra-hondakinen eta eraispenerako hondakinen isurketa kontrolatugabe eta zehaztugabeek eta hondakin horiek zati horientzako egokiak ez diren betetze-eremuetan botatzeak Arabako Lurralde Historikoan sortu dituzten eta sortzen ari diren arazoan eraginez bultzatu da Planean mota horretako hornidurak sartzea. Bilketa Unitateak martxan jartzeko egingo diren inbertsioen bilakaera hauxe izango da:
 - Dela obra zibilean dela beharrezko ekipamenduan egingo den hasierako inbertsioa Arabako Foru Aldundiak egingo du.
 - Bilketa Unitate horien funtzionamendutik eratorzen diren mantentze-lanak, garbiketa eta kostuak tokiko erakundearen ardura izango dira.
 - Bildutako materialak hurbilenerako hondakindegira garraiatzea eta material horiek han isurtzeagatik ordaindu beharreko tasa tokiko erakundearen kontura joango da baita ere.
 - Etxeen berritze lan txikiak bakarrik erabili ahalko dituzte bilketa unitateak; beste obretako hondakinak ez dira onartuko.
 - UBen mantentze-lanetatik datozen kostuak finantzatzeko obra txikien lizentzien emakidetakoa tasa bereziak ezarri ahalko dituzte tokiko erakundeek.



Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 Plana

BUak eraikitze jarduerak eta isurtze guneak zigilatze jarduerak, nahitaez, ondoz ondokoak izan behar dira, beraz, bi programak lotuta daude.

- EEHak kudeatzeko eskualdeko hondakindegia gaitzeko beharra dagoela ezartzen du Planak. Subsidiarioritasun printzipioarekin bat etorritik, ekimen pribatuek interesik ez duten eremuetan Arabako Foru Aldundiak sustatuko du azpiegiturak sortzea edo azpiegiturak egokitzea ondorengo eskema honen arabera:
 - Aiarako Kuadrilla: bi eremu. Audioko Arantzar inerteen zaborteia eta Amurrioko lur-depositua.
 - Añanako Kuadrilla: eremu bat oraindik zehaztu gabeko toki batean.
 - Arabako Lautadako Kuadrilla: eremu bat Agurainen. Galtzarren dagoen inerteen hondakindegia handitzea eta egokitzea, edo hondakindegia berri bat prestatzea oraindik zehaztu gabeko toki batean.
 - Arabako Errioxako Kuadrilla: eremu bat. Oiongo inerteen zaborteia berria kokatua.
 - Arabako Mendialdeko Kuadrilla: eremu bat. Kokapena oraindik zehazteke.
